



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko urtarrilaren 16a

3. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru-lege proiektuak:**

- 11-25/LEY-00014. Foru-lege proiektua, Nafarroako Boluntariotzari buruzkoa (4. or.).
- 11-25/LEY-00015. Foru-lege proiektua, Zientziari eta Teknologiari buruzko ekainaren 27ko 15/2018 Foru Legea aldatzea xede duena (19. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru-lege proposamenak:**

- 11-25/PRO-00020. Foru-lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzea xede duena. EH Bildu Nafarroa, Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkeztu dute (24. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- 11-25/MOC-00170. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita osasun mentaleko zerbitzuak O-NOZetik entitate pribatuetara ateratzean kalitatezko zerbitzua berma dezan, lanpostuak mantentzen ditzan eta lan baldintza duinak ziurta ditzan. Domingo González Martínez jaunak aurkeztu du (27. or.).
- 11-25/MOC-00171. Mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita inklusioa, ekitatea, gardentasuna eta tratu-berdintasuna berma ditzan Nafarroako hezkuntza-sistemaren eta aniztasuna artatzeko politiken printzipio lagaezin gisa. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak aurkeztu du (28. or.).
- 11-26/MOC-00001. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroaren konpromiso europazalea berretsi eta europar proiektua bakearen, eskubideen, berdintasunaren eta kohesioaren gune gisa aldeztu baita, Espainia Europar Batasunean sartzearen 40. urteurrena dela-eta. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (29. or.).
- 11-26/MOC-00002. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita neurriak har ditzan lan-merkatuan adinkeria detektatzeko eta desagerrarazteko. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (31. or.).
- 11-26/MOC-00003. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako gizarte-deskonexioko egoerari buruzko diagnosi bat presta dezan eta bakardadetik gizarte-konexiora pasatzeko estrategia bat zehaztu dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (32. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- 11-25/PES-00447. Galdera, Nafarroako Ubidearen 1. faseko eremu ureztagarria handitzeko emakida-kontratuko Plan Ekonomiko-Finantzarioaren berrerekatze-espeditentari Kontu-hartzaitza Nagusiak jarritako eragozpen-ohar etengarriari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (33. or.).
- 11-25/PES-00448. Galdera, onetsitako luzamendutik kanpo geratzen diren biometanizazio-plantetan ingurumen-babeserako neurri osagarriak ezartzeari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (34. or.).
- 11-25/PES-00449. Galdera, Pérez Capapay jaunak Nafarroako Gobernuko kontu-hartzaile nagusi denetik altxatutako eragozpen-ohar etengarriari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (35. or.).
- 11-25/PES-00450. Galdera, Familiako medikuen eta pediatren lekualdatzei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (36. or.).
- 11-25/PES-00451. Galdera, itxaron-zerrenden datuak atzera begira doitzea eragozten duten arrazoiei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (36. or.).
- 11-25/PES-00452. Galdera, suizidioaren prebentziorako programa Iruñeko espetxean aplikatzeari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (37. or.).
- 11-25/PES-00453. Galdera, EIBZ Ezpeleta Jauregira eramateko arrazoiei buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (38. or.).
- 11-25/PES-00454. Galdera, Nafarroako arte eszenikoetako ikasketei buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (38. or.).
- 11-25/PES-00455. Galdera, gaitako ikasle eta irakasleei buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (41. or.).
- 11-25/PES-00457. Galdera, osasun arloan izandako jazarpen salaketei buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (41. or.).
- 11-25/PES-00458. Galdera, Espainiako Gobernuak Next Generation funts europarren maileguetako 60.000 milioi eurori uko egiteari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (42. or.).
- 11-25/PES-00459. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea eraikitzeke lanen aurrekontuari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (43. or.).
- 11-25/PES-00460. Galdera, mendekotasuneko III+ graduari buruzkoa. Javier Arza Porras jaunak egin du (44. or.).
- 11-25/PES-00461. Galdera, gizarte-zerbitzuetako larrialdi-laguntzei buruzkoa. Javier Arza Porras jaunak egin du (45. or.).
- 11-26/PES-00001. Galdera, NOUko sexu- eta/edo lan-jazarpenari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (45. or.).
- 11-26/PES-00002. Galdera, arantza bifidoa eta/edo hidrozefalia duten pertsona helduak kronikoen estrategian oinarri hartuta artatzeko ereduari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (46. or.).
- 11-26/PES-00003. Galdera, 2024an eta 2025ean Lagun Egiteko Animalien Identifikaziorako Nafarroako Erregistroan erregistratutako zakurren eta katuen erroldan izandako aldaketei buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (47. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-25/ELCT-00001. Nafarroako Parlamentuak Senatuari Konstituzio Auzitegiko magistratu izateko aurkeztu behar dizkion bi hautagaiak izendatzea (48. or.).
- 11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (49. or.).
- 11-24/ELC-00002. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako kide bat hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (49. or.).
- 11-25/ELCR-00001. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko bost kideak hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (50. or.).
- 11-25/ELCO-00002. Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako (Gizain Fundazioa) patronatukide bat hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (50. or.).

- 5/2026 Ebazpena, urtarrilaren 14koa, Nafarroako Parlamentuko Legelari Nagusiarena, zeinaren bidez Iñaki San José Mendióroz jauna izendatzen baita Nafarroako Parlamentuko Mahaiko eta Eledunen Bazarreko Idazkaritzaren buru (51. or.).
- 11-25/OAN-00001. Barneko informazio-sistemaren organo arduraduneari jardunen diren pertsonak hautatzeko erabakia (51. or.).
- 11-25/CCNG-00001. Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren ebazpena, zeinaren bidez ezartzen baita erakunde horren Erregistro Orokorrak 2026an izanen duen ordutegi ofiziala (52. or.).
- 11-25/CCNG-00003 Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren ebazpena, zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregelamendu Finantzarioa (52. or.).

---

**A saila:**  
**FORU-LEGE PROIEKTUAK**

---

## **11-25/LEY-00014. Foru-lege proiektua, Nafarroako Boluntariotzari buruzkoa**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2025eko abenduaren 30ean hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako Boluntariotzari buruzko foru-lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Xedatzea Nafarroako Boluntariotzari buruzko foru-lege proiektua prozedura arruntari jarraituz izapidetu dadila.

**2.** Lehendakaritza eta Berdintasun Batzordeari esleitzea proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik hamar egun balioduneko epea irekiko da, **2026ko otsailaren 2ko eguerdiko 12:00etan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote foru-lege proiektuari.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **Foru-lege proiektua, Nafarroako Boluntariotzari buruzkoa**

#### **ZIOEN AZALPENA**

Nafarroako Foru Komunitatean ohitura errotoa da pertsona batzuek beste batzuen edo komunitatearen mesedetan jardutea.

Alde horretatik, auzolana edo artelana gogoratu daiteke, adibidez, komunitatearen onerako egiten den lan hori, zeina, usadioaren arabera, komunitatearentzat onak diren eta herri bateko bizilagunek beraiek, hein batean bada ere, egin ditzaketen zenbait zeregini heltzeko beharrak sortutakoa baita. Auzolana komunitatetik bertatik sortu zen eta tokian tokiko ohiturek arautu zuten, baina gero lege testuetan ere jaso zen.

Espainiako Konstituzioaren 9.2 artikulua jasozten duenez, botere publikoek baldintzak jarri behar dituzte norbanakoen nahiz taldeen askatasuna eta berdintasuna bene-benetakoak izan daitezen; halaber, askatasun eta berdintasun xede hori galarazten edo osotara garatzea zailtzen duten oztopoak kendu behar dituzte, eta herritar guztiei aukera egokia eman bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean parte hartzeko.

Europako 1961eko Gutun Sozialak eta Nazio Batuen Batzar Orokorrak 1986ko otsailean onetsitako Ebazpenak nabarmentzen dute garrantzitsua dela bultzatzea herritarrek borondatezko zerbitzuen bidez parte-hartzea gizartean eta parte-hartze horri aitortza ematea, gizarte inklusiboagoak eta justuagoak lortzeko funtsezko elementua delakoan.

Aurreko guztiarekin lotuta, Europako Kontseiluak eta Europako Parlamentuak, ebazpen eta gomendioen bitartez, neurri orokor batzuk taxutu dituzte herritarrek sentsibilizatzeko bai gizartearen arazoez bai borondatezko lanek arazo horiek konpontzeko egin dezaketen ekarpenaz, aisialdia modu eraikitzailean erabiliz eta ekintza sozialean parte hartuz. Arlo horretan, azpimarratzekoak dira

zenbait ekimen, Europako Elkartasun Kidegoa edo UN Volunteers, esate baterako, nazioez gaindiko instituzioek jardun boluntarioaren sustapenarekin duten konpromisoa erakusten dutenak.

Gaur egun, Estatuan boluntariotza araututa dago Boluntariotzari buruzko urriaren 14ko 45/2015 Legean. Arau horren azken xedapenetako bigarrenean ezartzen da aplikatuko dela ukatu gabe autonomia erkidegoek beren autonomia estatutueta eta legeria espezifikoan boluntariotzaren arloan esleitu ta dituzten eskumenak.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe tzeari buruzko Lege Organikoak berriitu ditu Nafarroako eskumen historikoak, Nafarroako gizartearen tzat kezka iturri diren alderdi guztiei dagokienez. Horien artean dago herritarrek Foru Komunitatean ongizatea lortzeko parte hartzeari buruzko eskumena, legegintzako eta antolamendukoa, eta, zehazki, garapen komunitarioaren arloko eskumena, 44.18 artikuluan jasota dagoena.

Nafarroako Foru Komunitateak araudi zabala du boluntariotzaren arloan, Nafarroako Bolondreslanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea onetsi zenetik.

27 urte baino gehiago iragan dira arau hori onetsi zenetik; izan ere, foru legearen atarikoan berariaz jasotzen denez, Nafarroako 1997-2000 aldirako Plan Gerontologikoan izan zuen abiapuntua.

Ordutik hona aldaketa handiak gertatu dira, eta zenbait balio mantendu egin badira ere –boluntariotzaren garrantzia, adibidez–, beste batzuk gizartearen erritmoan eraldatzen joan dira. Sakoneko eraldaketak bizi izan ditugu, herritarrek parte hartzeko moduetan nahiz elkartasunezko konpromisoaren ideian berean. Errealitate horren aurrean, ezinbestekoa da lege esparrua berriitu eta eguneratzea, oraingo garaietako eskakizunetara eta errealitateetara egokitzeko.

Gaur egun, boluntariotza askotarikoa da bere esparruei dagokienez, boluntariotzaren arloko entitate motei dagokienez eta boluntarioak jardun boluntarioan aritzera bultzatzen dituzten arrazoiei dagokienez. Boluntariotza mota bat dago pertsona bakoitzarentzat. Foru lege honek, aniztasun hori jaso eta aitortzen baitu, aurreikusten du boluntariotza iraunkorrak eta boluntariotza puntualak eta mikroboluntariotzak egon daitezkeela, bai eta jardun boluntarioa modu presentzialean, digitalean edo birtualean egiteko aukera ere. Aniztasun hori ekintza komunitarioaren esparruak arautzean ere hartzen du kontuan.

Beste alde batetik, jardun boluntarioaren onuradunak izan ohi diren zenbait kolektibok ekarpen aktiboa egiten diote gaur egun boluntariotzari, haiek ere boluntarioak baitira. Desgaitasuna duten pertsoenez, haur-nerabeez eta adinekoenez ari gara, besteak beste.

Arauk genero ikuspegia ere aintzat hartzen du, eta emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna jasotzen du jardun boluntarioaren esparru orotan, arreta emanda bereziki emakumeen ahalduzeari eta parte-hartze sozialari.

Boluntariotzan aritzeko moduak ere aldatu dira: ohikoari, hots, fisiko edo presentzialari, batu zaizkio orain bitarteko digitalak erabiliz egiten dena, presentzialtasuna beharrezkoa izan gabe.

Boluntariotza mesedegarria da jasotzen duenarentzat, baina, horrez gain, boluntarioa eraldatzen du eta, finean, gizarte osoaren zimendu etiko eta komunitarioak sendotzen ditu.

Beste alde batetik, boluntariotzaren arloko eragileak ikusarazi behar dira, eta sarean lan egiteko garrantzia nabarmendu beharra dago. Horrela, arauaren helburua da sektoreen arteko lotura bermatzea eta, horretarako, aliantzak sustatu boluntariotzaren arloko entitateen, boluntarioen, administrazio publikoen eta enpresen artean, sinergiak bilatzeko eta boluntariotza indartzeko, Boluntariotzaren Nafarroako Sarea izenekoaren baitan.

Horretarako, beharrezkoa da balioa ematea boluntariotzaren arloko eragileei eta argi arautzea haien eskubideak eta betebeharrak.

Boluntariotzak balio handia du, herritarren parte-hartze aktiborako bitartekoa eta aldaketa sozialerako eragile den aldetik. Boluntariotzaren inguruan gizakien arteko hartu-emanak sortzen dira, konfiantzakoak eta kalitatezkoak jo ditzaizkegunak. Horregatik, boluntariotza bizi kalitaterako bektore bat izan daiteke Nafarroako gizartearentzat. Horrenbestez, Nafarroan boluntariotza bultzatu, ikusarazi, sendotu eta garatu behar da, eta foru lege honen norabidea da behar horiei erantzuna ematea, gizartearen berean sortzen den boluntariotzaren ernamuina errespetatuz betiere, eta Nafarroako administrazio publikoak hazi horren lagungarri izatea. Arauaren helburua da, hortaz, konpromiso solidarioa sendotzea ongizate kolektiboa lortzeko xedez, gizartearen talde bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuta.

Boluntariotzaren beste alderdi garrantzitsu bat da Nafarroako herriak bizirik mantentzen laguntzen duen jarduera bat dela; ekintza komunitarioa tokiko eremuan nahitaezkoa da komunitate harre-

manak eta kidetze sentimendua sortzeko, eta laguntzen du, gainera, bizi kalitatea hobetzen landa eremuan.

Horregatik guztiagatik, lege hau onestea justifikatuta dago boluntariotzaren jarduna eguneratzeak eta aitortzeak berebiziko garrantzia dutelako, gizarte ongizatea, komunitatearen kohesioa eta giza garapen integrala sustatzeko tresna den aldetik.

Nafarroako III. Boluntariotzaren Planak (2024-2027), hasiera-hasieratik boluntariotzaren arloko entitateen, boluntarioen eta administrazio publikoen partaidetzarekin prestatu zenak, arau-esparruaren berrikuspena jasotzen du bere konpromisoen artean, zeharkako ildo gisa. Zehazki, ekintzetako bat da Nafarroako Bolondres-lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea berrikusi eta eguneratzea. Hala, Nafarroako boluntariotzaren arloko eragileen konpromiso bat da arau berri hau izatea, Nafarroako boluntariotzaren gainekoa.

Foru lege hau partaidetza prozesu zabal baten bidez prestatu da, boluntariotzarekin lotura duten pertsona eta entitate guztiek beren legea dela sentitu dezaten eta boluntariotzaren arloko eragile guztiak ordezkatzan dituen arau erabilgarria izan dadin.

Alde horretatik, alde zurreko jendaurreko kontsultaren eta herritarren partaidetzaren tramite guztiak bete dira, "Parte hartu, Nafarroa!" atalean argitaratu baita. Horrez gain, parte hartzeko 9 saio presentzial egin dira, lurraldekoak nahiz sektoria-lak. Azkenik, Nafarroako Boluntariotzaren Kontseiluak testuaren aldeko txostena egin du.

Foru lege honen I. tituluaren helburu nagusia da foru legearen xedea eta haren aplikazio esparru subjektiboa eta lurralde esparrua ezartzea.

II. tituluaren jardun boluntarioaren kontzeptua arautzen da. Bertan ezartzen dira, halaber, jardun boluntarioaren printzipioak eta jardun boluntario horren esparruak, zenbait eremu hartzen dituztenak, boluntariotza sozialera mugatu gabe eta ahalik eta zabalena izateko, esparru itxia izan ez dadin.

III. tituluaren jasotzen da jardun boluntarioaren subjektuen estatutua dei genezakeena; horrela, boluntarioen, boluntariotzaren arloko entitateen eta jardun boluntarioaren onuradunen kontzeptuak, eskubideak eta betebeharrak arautzen dira. Boluntarioei dagokienez, nabarmendu behar da arautzen direla, batetik, boluntariotza eta adingabeak eta, bestetik, jardun boluntarioarekin bateraezinak diren zenbait ekintza. Boluntariotzaren arloko entitateei

dagokienez, arautzen dira, halaber, ekintza plana, koordinatzailearen figura eta boluntarioekin duen harremana eta, zehazki, konpromiso-hitzarmena, jardun boluntarioan aritzeko debekuak, harremanaren bukaera eta bitartekaritza.

IV. tituluak honakoak arautzen ditu: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eginkizunak, mahai tekniko baten eraketa eta Nafarroako toki entitateen eginkizunak.

V. tituluaren, boluntariotzarako gai garrantzitsu bat arautzen da: hezkuntza sisteman presentzia izatea eta sustatzea, bai unibertsitatekoan bai unibertsitatez kanpokoan. Erabakigarria da boluntariotza haurtzarotik hasita sustatzea, komunitatearen eta gizateriaren ongizatearekin orain eta etorkizunean ere konprometituagoa egonen den gizarte bat sortu ahal izateko.

VI. tituluaren biltzen dira, halaber, boluntariotzarako funtsezkoak diren beste elementu batzuk, hala nola plangintza eta sustapena. Titulu horretan garrantzizko tresna batzuk jasotzen dira: Boluntariotza Plana; Boluntariotzaren Nafarroako Sarea; aitortzak, boluntariotza sustatzeko eta ikusarazteko bide gisa; identifikazioaren akreditazioa; prestakuntza, zehazki, boluntariotza eskola; alianztzak; boluntariotzaren arloko entitateen erregistroa; eta, azkenik, boluntariotza korporatiboa.

Bukatzeko, VII. tituluak Nafarroako Boluntariotzaren Kontseilua arautzen du, boluntariotzaren gaietarako kontsulta eta partaidetza organoa.

Foru legeak bi xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bakar bat eta bi azken xedapen ditu.

## **I. TITULUA**

### **Alderdi orokorrak**

#### **1. artikulua.** Xedea.

Foru lege honen xedea da:

a) Jardun boluntarioa definitzea.

b) Boluntarioen, boluntariotzaren arloko entitateen eta jardun boluntarioaren hartzaileen eskubideen eta betebeharren araudia ezartzea.

c) Boluntariotzaren arloko Nafarroako eragile- en lankidetza eta koordinazioa sustatzea, gizarte eraldaketarako sareak sortuz.

d) Nafarroako administrazio publikoen jarduna eta eginkizunak antolatzea boluntariotza sustatzeko eta bultzatzeko.

**2. artikulua.** Aplikazio eremu subjektiboa.

1. Foru lege hau Nafarroako boluntariotzaren arloko eragileei aplikatuko zaie.

2. Foru lege honen ondorioetarako, hauek dira boluntariotzaren arloko eragileak:

a) Boluntariotzaren arloko entitateak.

b) Boluntarioak.

c) Jardun boluntarioaren hartzailleak.

d) Nafarroako administrazio publikoak.

e) Aurreko letretan aurreikusi gabeko beste pertsona eta entitate batzuk, baldin eta boluntariotzaren arloko entitateen bidez ekintza boluntarioak bultzatzen edo sustatzen badituzte edo, oro har, boluntariotza sustatzen laguntzen badute.

**3. artikulua.** Aplikatzeko lurralde eremua.

Foru lege hau jardun boluntario osoari aplikatuko zaio, baldin eta jarduera, onura edo programa Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean gauzatzeko bada, edozein izanda ere entitateen titulartasuna edo egoitza soziala duten lekua.

## II. TITULUA

### Jardun boluntarioa

**4. artikulua.** Jardun boluntarioaren kontzeptua.

1. Foru lege honen ondorioetarako, jardun boluntarioa pertsona fisikoek gauzatzeko duten prestazio aske, arduratsu, altruista eta solidarioa da, ordaindu gabekoa, legezko betebeharrak ondo ez dena eta interes orokorreko helburuak lortzen laguntzen duena.

2. Jardun boluntarioa boluntarioek betetzen dute boluntariotzaren arloko entitateen bitartez, hauen boluntariotza plan edo programen barruan, eta aukera dago modu presentzialean edo birtualean egiteko, iraunkortasunez edo puntualki.

3. Jardun boluntarioaren kontzeptutik kanpo geratzen dira honako hauek: ordaindutako lana, lege edo kontratu egoeren ondoriozko betebeharrak, eta helburu pertsonalekin edo irabazizko helburuekin egindakoak.

**5. artikulua.** Jardun boluntarioaren printzipioak.

Boluntariotzaren arloko eragileek printzipio hauen arabera garatuko dute beren jarduera boluntariotzaren eremuan:

a) Borondatez jardutea; bai boluntarioek bai jardun boluntarioaren hartzailleek askatasunez jarduten dela barneratuta izatea.

b) Doakotasuna; bermaturik dago jardunean etekinik lortu nahi ez delako eta irabazi ekonomiko pertsonalik sortzen ez delako; modu horretan, bermatuko da jarduna desinteresatua eta altruista dela, jardun boluntarioaren hartzailleak kontraprestaziorik eman gabe.

c) Berdintasuna, begirune ideologikoa, pertsonak ez diskriminatzea eta emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna, boluntariotzaren jardun esparru guztietan.

d) Inklusioa; desgaitasuna duten pertsonak, adinekoak, migratzaileak, adingabeak eta beste kolektibo zaurgarri edo ordezkari txikiko batzuek boluntario gisa parte har dezaten sustatuz.

e) Parte-hartze arduratsu eta demokratikoa; gobernu, erabaki eta hausnarketa prozesu inklusibo eta ordezkagarrien bidez bermatua, kontuan hartuta emakumeen ahalduntzea eta partaidetza soziala.

f) Elkartasuna, konpromiso soziala eta garapen komunitarioa, jardun boluntarioari dagokiona.

g) Autonomia; ondasun komunaren erantzukizun kolektiboaren esparruan, pertsonak eta entitateak beren jarduerak gauzatzeko erabaki independenteak sortzeko eta hartzeko duten gaitasuna aitortzeko.

h) Boluntariotzaren arloko eragile guztien arteko osagarritasuna, sareko lanaren bidez ondasun komuna lortzeko.

i) Ekintzaren jasangarritasuna eta efizientzia; eragin positiboa eta iraunkorra izateko, bai pertsonengan, bai gizartean, eta, bereziki, ingurumenean.

j) Gardentasuna; boluntarioei eta, oro har, gizarteari beren jarduerari, baliabideei eta kudeaketari buruzko informazio argia eta eskuragarria emanez.

k) Intimitatea eta datu pertsonalen pribatasuna errespetatzea; lortu nahi diren interes orokorreko helburuak lortzeko behar den errespetu eta konfiantza giroa sortzeko.

l) Jardun boluntarioaren plangintza eta koordinazioa.

**6. artikulua.** Jardun boluntarioaren esparruak.

1. Jardun boluntarioa gauzatzeko da ondasun komuna sustatzen laguntzen duten interes orokorreko esparruetan.

2. Zehazki, jardun boluntarioaren berezko esparruak izanen dira, besteak beste, honako hauek:

a) Soziala, soziosanitarioa, sanitarioa eta osasuneko.

- b) Hezkuntza eta prestakuntza.
- c) Landa eta toki garapena zein integrazioa.
- d) Kulturaren zein historia eta arte ondarearen babesa eta zaintza.
- e) Aisia eta aisialdia.
- f) Kirola eta jarduera fisikoa.
- g) Nazioarteko boluntariotza, garapenerako lankidetzeta eta elkartasun globala.
- h) Ingurumenaren zaintza, jasangarritasuna eta animalien babesa.
- i) Berdintasuna, nortasunarekiko errespetua eta aniztasuna.
- j) Baldintza sozioekonomikoen eta gizarte kohesioaren hobekuntza.
- k) Herritarren parte-hartzea eta komunitatearen edo auzokideen jarduerak.
- l) Desgaitasuna eta inklusiorako laguntza.
- m) Gizarteratzea, gizarteratzea eta laneratzea, eta zaurgarritasun egoerak.
- n) Babes zibila eta larrialdiak.

3. Jardun boluntarioaren eremuak izaten ahal dira aurrekoen antzekoa edo bateragarria den edozein.

### III. TITULUA

#### Jardun boluntarioaren subjektuak

#### I. KAPITULUA Boluntarioa

##### 7. artikulua. Kontzeptua.

1. Boluntarioa da modu libre, altruista eta solidarioan interes orokorreko jardueretan parte hartzea erabakitzen duen pertsona fisikoa. Jarduera horiek boluntariotzaren arloko entitateen bidez antolatzen dira, hirugarren pertsonen edo gizarte osoaren mesedetan.

2. Boluntarioak gaitasun osoarekin eta erabakitze askatasunarekin jardunen du, eta jarduna eta hartzailak behar den arduraz zainduko ditu, foru lege honetan adierazitako printzipio, eskubide eta betebeharren arabera; halaber, bere lankidetzeta formalizatuko du boluntariotzaren arloko entitatearekin konpromiso-hitzarmen bat izenpetuz.

##### 8. artikulua. Boluntarioen eskubideak.

Boluntarioek eskubide hauek izanen dituzte:

a) Beren askatasuna, duintasuna, intimitatea eta sinesmenak errespetatuak izateko eskubidea,

bai eta berdintasunez eta diskriminaziorik gabe edo beren eskubideei kalterik egin gabe tratatuak izateko eskubidea ere.

b) Lotura askatasunez, modu itunduan eta integratzailean egiteko eskubidea, baldintzak, denbora, eremua eta hura gauzatzeko beharrezkoak diren gainerako inguruabarrak adostuta.

c) Boluntariotzaren arloko zer entitatearen kide izan nahi duten, horren helburuari, antolaketari, nortasunari eta funtzionamenduari buruzko informazio guztia biltzen duen konpromiso-hitzarmen bat sinatzeko eskubidea. Ez da konpromiso-hitzarmenik izenpetuko 17. artikuluko 3. apartatuan ezarritako kasuetan.

d) Beren funtzioei dagozkien berezitasun tekniko, etiko eta operatiboak heltzeko diseinatutako prestakuntza –hasierakoa zein jarraitua– jasotzeko eskubidea, beren jardunaren kalitatea eta eraginkortasuna babesteko prestakuntza integrala bermatzeko.

e) Jarduna segurtasun, osasun eta higiene baldintzekin egiteko, haren izaeraren eta ezaugarrien arabera. Behar diren informazioa, bitartekoak eta laguntza jasotzeko eskubidea, prozesu horietan parte hartuz, jarduera eta programa espezifikoak ahalik eta eraginkortasun handienarekin egiteko.

f) Programa edo jarduera aldatzea edo konpromiso-hitzarmenean ezarritako baldintzak aldatzeko eskubidea, modu adostuan.

g) Jarduerak eta programak diseinatzeko, planifikatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko prozesuetan aktiboki parte hartzeko eskubidea, iradokizunak eta kexak aurkezteko bideak barne, jardunak ahalbidetzen duen neurrian erantzukidetasuna sustatzeko.

h) Jardun boluntarioaren balio soziala eta profesionaletatik aitorzeko eta finkatzeko helburuaz, aitortza formala eta akreditazioa jasotzeko eskubidea, eta jardunaren iraupena, funtzioak, garatutako gaitasunak eta eskuratutako esperientzia jasoko dituzten ziurtagiriak emateko.

i) Jarduerak egin bitartean boluntarioak babesteko, arriskuen estaldurarako eskubidea, aseguru polizen edo finantza bermeen bidez baldin eta borondatezko ekintzaren ondoriozko istripuak eta erantzukizun zibila estaltzen badituzte legez eska daitezkeen kasuetan.

j) Jardun boluntarioak eragindako gastuak ordain dakizkion, konpromiso-hitzarmenarekin bat.

k) Datu pertsonalak babesteko eskubidea.

l) Jarduna borondatez eta hertsadurarik gabe egiteko eskubidea.

m) Parte hartzeari askatasunez uko egiteko eskubidea, egoera horrek hartzaileengan edo programaren garapenean eragin negatiborik izan ez dezan saiatuz.

n) Jarduna treesna digitalen bidez egiteko eskubidea, haren izaerak hala eskatzen badu edo horretarako aukera ematen badu, boluntarioen eta hartzailearen integrazioa digitala errazteko.

ñ) Gizarteak eta entitateak aitortza emateko eskubidea, parte-hartzean erakutsitako balio eta konpromiso solidario eta altruistagatik.

o) Foru lege honek edo aplikagarri den araudiak aitortzen dien beste edozein eskubide.

### **9. artikulua.** Boluntarioen betebeharrak.

Boluntarioek betebeharrak izan behar dituzte:

a) Hartzaileen eskubideak errespetatzea, konfidentzialtasuna eta, hala badagokio, jasotako informazioaren izaera erreserbatua zaintzeko.

b) Konpromiso-hitzarmenean hartutako konpromisoak betetzea, egiten duten jardunaren bidez entitatearen helburuak eta parte hartzen duten boluntariotza programaren helburuak betetzen laguntzeko.

c) Behar den arduraz jardutea, jardun boluntarioaren berezko balioak errespetatuz.

d) Jardun boluntarioagatik eskaintzen ahal zaien edozein kontraprestazio ekonomiko edo material uko egitea, ohiko, gizarteak eta kortesiako usadioen arabera izan ezik.

e) Boluntariotzaren arloko entitatearen barne funtzionamenduko arauak betetzea, bai eta, hala badagokio, jardueren xederako egokiak diren aginduak eta jarraibideak ere.

f) Entitatearekin lankidetzan aritzea jardueren plangintzan, garapenean eta ebaluazioan, arduradunen jarraibideak errespetatuz.

g) Araudiak eskatzen duen prestakuntza orokorra jasotzea eta entitateak antolatzen dituen prestakuntza jardueretan arduraz parte hartzea, beren gaitasunak hobetzeko eta programak eta ekintzak behar bezala garatzeko.

h) Boluntario akreditazioa eta entitateak haren esku jartzen dituen baliabideak eta bitartekoak egoki eta zentzuz erabiltzea.

i) Jarduera uzteko erabakiaren berri ematea entitateari behar besteko aurrerapenaz, eta ahale-

gina egitea erabaki horrek ondorio negatiborik izan ez dezan hartzaileengan eta garatzen ari den programan.

j) Jardun boluntarioaren garapenari eragiten dion edo hartzaileak edo entitatea arriskuan jartzen ahal duen edozein gorabeheraren berri ematea, eta, bereziki, ordenamendu juridikoa urratzen duen edozein egoeraren berri ematea, eta, hala badagokio, dagozkion agintariei jakinaraztea.

k) Pertsona eta erakunde guztiekin portaera kooperatiboa eta begirunezkoa izatea, eta diskriminazioa, abusua, indarkeria edo jazarpena dakarren edozein jokabide saihestea.

l) Foru lege honetan edo araudi aplikagarrian ezarritakoak dakartzan gainerako betebeharrak betetzea.

### **10. artikulua.** Jardun boluntarioaren bateragarritasuna eta gauzatzea.

1. Boluntariotza jarduerak egitea ezin izanen da lanpostuak desagerraraztea justifikatzeko arrazoia izan.

2. Jardun boluntarioak ez ditu ordeztuko administrazio publikoen eta haien enplegatuen betebeharrak eta eginkizunak zerbitzu publikoak ematean.

3. Besteren kontura lan egiten dutenek lanalditik kanpo bakarrik egiten ahalko dituzte boluntariotza jarduerak.

4. Boluntariotzaren arloko entitatean bertan besteren kontura egiten den lana bateragarria izan da boluntarioaren lanarekin, baldin eta jardun hori lanalditik kanpo egiten badu eta bertan egiten dituzten bestelako funtzioekin.

5. Boluntario izaera bateragarria da boluntariotzaren arloko entitateko bazkide izatearekin eta haren gobernu organoetan parte hartzearekin, baldin eta entitatearen estatutuekin bat badator.

### **11. artikulua.** Adingabeak eta boluntarioak.

1. Adingabeek boluntariotza jardueretan parte hartzen ahalko dute, beren heldutasunaren eta jardun boluntarioaren edukiaren arabera.

2. 16 urtetik 18 urtera bitartekoek askatasunez ematen ahalko dute boluntariotza jarduerak egiteko baimena.

3. 12 urtetik 16 urtera bitartekoek boluntariotza jarduerak egiten ahalko dituzte, baldin eta jardueraren horiek ez badiete kalterik egiten haien garapenari, prestakuntza integralari eta eskolatzeari, edo ez badute arriskurik haien segurtasunerako, eta,

betiere, gurasoen, tutoreen edo legezko ordezkarien berariazko baimena badute.

4. Entitate antolatzaileek adingabeen segurtasun eta babes ingurune seguru eta babestua bermatuko dute, haien prestakuntza sustatuko duen gainbegiratze eta laguntza egokiarekin, eta egokitasuna modu sinesgarri eta arrazoituan baloratuko dute.

## II. KAPITULUA

### Boluntariotzaren arloko entitateak

#### 12. artikulua. Kontzeptua.

1. Boluntariotzaren arloko entitateak nortasun juridikoa duten irabazi-asmorik gabeko entitateak dira, interes orokorreko edo ondasun komuneko jarduerak egiten dituzte, eta boluntarioek parte hartzen dute haietan.

2. Boluntariotzaren arloko entitateek honako hauek bete beharko dituzte:

a) Legez eratuak egotea.

b) Nortasun juridikoa duten irabazi-asmorik gabeko entitateen erregistro ofizial batean inskribatuta egotea, non, haien izaera dela eta, ez zaien eskatu behar halakorik.

c) Boluntariotza ekintzak egitea boluntarioekin, horrek galarazi gabe soldatapeko langileak izatea, entitatearen funtzionamendurako behar direnak.

d) Jardun boluntarioaren plan bat onartu eta garatzea.

3. Boluntariotzaren arloko entitateak hartuko dira estatuan, autonomia erkidegoetan, tokiko mailan edo Europar Batasunean legez eraturako boluntariotzaren arloko entitateen entitate, federazio, konfederazio edo batasun guztiak.

**13. artikulua.** Boluntariotzaren arloko entitateen eskubideak.

Boluntariotzaren arloko entitateek honako eskubide hauek dituzte:

a) Beren boluntariotza programak diseinatzea, boluntarioak kudeatzea, barne egiturak ezartzea eta beren baliabideen kudeaketari buruz erabakitzea.

b) Jardun boluntarioarako pertsonak hautatzea, bai eta boluntarioekiko harremana amaitzea ere, 19. artikuluan xedaturako arrazoi justifikatuak gertatzen badira.

c) Jardun boluntarioaren arloko politika publikoak diseinatzen, gauzatzen eta ebaluatzen zuzenean edo zeharka parte hartzeko eskubidea.

d) Administrazio publikoei beren jarduerak behar bezala gauzatzeko informazioa, orientazioa eta laguntza eskatzeko eta haietatik eskuratzeko eskubidea, bai eta dirulaguntzen deialdietan eta bestelako laguntza publiko eta pribatuetan parte hartzeko eta legeria espezifikoan ezartzen diren zerga pizgarrien onuradun izatekoa ere.

e) Ondasun komunaren sustapenean funtsezko eragile diren aldetik aitortza publikoa jasotzeko eskubidea. Eskubide horrek barne hartzen du haien lana eta balioak ikusaraztea ahalbidetzen duten hedapen mekanismoak baliatzea.

f) Foru lege honek edo aplikagarri den araudiak aitortzen dien beste edozein eskubide.

**14. artikulua.** Boluntariotzaren arloko entitateen betebeharrak.

1. Boluntariotzaren arloko entitateek honako betebeharrak dituzte boluntarioei dagokienez, haiekin boluntariotza harreman bat badute:

a) Haien askatasuna eta autonomia errespetatzea, programen diseinuan eta gauzatzean haien parte-hartzea inklusiboa eta aktiboa izanen dela ziurtatuz, haien iritzia errespetatuz eta erabakiak hartzeko prozesuetan inplika daitezzen sustatuz.

b) Idatziz izenpetzea dagokion konpromiso-hitzarmena, salbu eta 17. artikuluko 3. apartatuan ezarritako kasuan.

c) Hasierako eta etengabeko beharrezko prestakuntza bermatzea, jarduerak eraginkortasunez, segurtasunez eta boluntariotzaren printzipioekin bat etorri egin ahal izateko.

d) Boluntariotza jarduerak behar bezala gauzatzeko ezinbestekoak diren baliabide materialak eta teknikoak ematea, baita giza baliabideak ere.

e) Boluntario guztien irisgarritasun unibertsalera eskubidea bermatzea, ekintza boluntarioak baldintza berdinetan egin ahal izateko.

f) Aseguru polizak edo bestelako finantza bermeak izatea, erantzukizun zibila, istripuak eta egindako jardueren ondorioz hirugarrenei eragiten ahal zaizkien kalteak estaltzeko.

g) Jardun boluntarioak eragindako gastuak ordaintzea.

h) Segurtasun, higiene eta babes baldintzak bermatzea jardueraren izaeraren eta ezaugarrien arabera.

i) Aldez aurretik eskatuta, 34. artikuluan aurreikusitako zerbitzua eman izanaren ziurtagiria luzatzea.

j) 35. artikuluan adierazitako identifikazio-akreditazioa ematea.

k) Boluntarioek jardun boluntarioan hirugarrenei eragindako kalte-galerei erantzutea, Kode Zibilaren eta indarrean dauden arauen arabera.

2. Boluntariotzaren arloko entitateek honako betebeharrak dituzte administrazio publikoetako eta gizartearekiko:

a) Jardun boluntarioaren plana diseinatu, ezarri eta gainbegiratzea.

b) Boluntarioen koordinatzaile bat izendatzea, eta zeregin hori egiteko behar diren baliabideak ematea.

c) Boluntarioen alden eta bajeen erregistro eguneratua izatea –hasteko eta amaitzeko datak eta beharrezko identifikazio datuak adierazita, sexua-ren aldagaia barne–, eta egindako jarduerena.

d) Informazio argia eta gardena ematea hauei buruz: xedea, ikuspegia eta balioak, helburuak eta jarduerak; eta modu eskuragarri eta ulergarri kontu ematea.

e) 11. artikuluan aurreikusitako baimenak biltzea eta gordetzea.

f) 18. artikuluan aurreikusitako adierazpenak eta ziurtagiriak biltzea eta zaintzea.

g) Datuak babesteko araudia betetzea.

h) Foru lege honetan edo araudi aplikagarrian ezarritakoak eragindako gainerako betebeharrak betetzea.

3. Nafarroako Gobernua lankidetzan arituko da boluntariotzaren arloko entitateekin betebeharrak horiek bete daitezzen.

#### **15. artikulua.** Jardun boluntarioaren plana.

1. Entitateek jardun boluntarioaren plan bat izan beharko dute, hau da, boluntariotzaren arloko entitateko gobernu organoak onetsitako dokumentu formala, programak eta ekintza boluntarioak biltzen dituen.

2. Hona hemen planaren gutxieneko edukia:

a) Izena.

b) Xedea eta helburuak, entitatearen misioarekin, ikuspegiarekin eta balioekin bat etorri beharko dutenak.

c) Planaren arduradunaren eta boluntarioen koordinatzailearen identifikazioa (pertsonek bera izaten ahal da).

d) Jarduteko lurralde esparrua.

e) Gauzatzeko aurreikusitako epea.

f) Dituena programen edo jardueren deskribapena.

g) Boluntarioen identifikazioa eta eskatzen zaizkien profilak eta prestakuntza.

h) Hala badagokio, hartzaileen profila zehazteko erabilitako irizpideak.

i) Jarduera prozesuetako prestakuntzarako eta partaidetzarako protokoloak, sistemak eta planak.

j) Adingabeek parte hartzen laguntzeko bitartekoak.

k) Beharrezko bitarteko eta baliabideak, eta finantza eta aurrekontu plana.

l) Jarraipen eta ebaluazio mekanismoak, aurreikusitako aldizkakotasunarekin.

m) Boluntarioei ordaindu beharreko gastuen definizioa eta horiek kalkulatzeko prozedurak.

3. Boluntarioek parte hartu beharko dute plana egiten, erakundearentzako balio erantsi gisa.

4. Plana garatzeko, plan horretatik plan espezifikoak, programak eta ekintzak ateratzen ahal dira.

#### **16. artikulua.** Boluntarioen koordinatzailea.

Boluntariotzaren arloko entitateek boluntarioen koordinatzaile bat izendatu beharko dute. Koordinatzaile horrek erantzukizun nagusi hauek izanen ditu:

a) Boluntarioak arduraz antolatu eta kudeatzea; horretarako, boluntarioen erregistroa kudeatu behar du, bai eta zerbitzuak identifikatzeko eta egiaztatzeko dokumentazioa ere.

b) Jardun planaren arabera, berariazko programak planifikatzea, antolatzea, gainbegiratzea eta ebaluatzea, horiek behar bezala gauzatzen direla ziurtatuz.

c) Prestakuntza egokia antolatzea, gatazkak konpontzea eta boluntarioen eta jardun boluntarioaren hartzaileen segurtasuna eta osasuna bermatzea jarduerak gauzatzen diren bitartean.

d) Prozesu eta programetan boluntarioen eta hartzaileen arteko komunikazioa eta parte-hartzea.

e) Entitatearen boluntariotza planaren prestaketa eta eguneraketa koordinatzea.

f) Entitatearen boluntariotza plana gauzatu eta ebaluatzen dela ziurtatzea.

g) Boluntarioen eta hartzaileen jarraipena egitea eta gainbegiratzea antolatzea.

### III. KAPITULUA

#### Boluntariotzaren arloko entitateen eta boluntarioen arteko harremanak

##### 17. artikulua. Konpromiso-hitzarmena.

1. Boluntariotzaren arloko entitatearen eta boluntarioaren arteko harremana konpromiso-hitzarmen bat sinatuz ezarriko da, eta hori izanen da bere araubidearen tresna nagusia.

2. Hitzarmen horrek, gutxienez, honako alderdi hauek hartuko ditu:

a) Boluntarioak hartzen duen konpromisoa –eginkizun, jarduera, modalitate eta dedikazio denboraren deskribapena– eta parte hartzen duen boluntariotza programaren koordinatzailearen identifikazioa.

b) Bi alderdiei dagozkien eskubide eta betebeharrak guztiak.

c) Esleitu zaizkion eginkizunak betetzeko behar diren prestakuntza premiak eta jarraitu beharreko prestakuntza ibilbidea.

d) Boluntariotza programa edo ekintza aldatzeko, edo hasieran adostutako araubidea aldatzen duen beste edozein inguruabarretarako aurreikusitako mekanismoa.

e) Konpromisoaren iraupena, bai eta bi aldeak deslotzeko arrazoiak eta modua ere.

f) Boluntarioei gastuak ordaintzeko araubidea eta horiek zenbatesteko modua.

g) Boluntarioentzako nahitaezko aseguruari buruzko informazioa.

3. Ez da beharrezkoa izanen konpromiso-hitzarmena izenpetzea jardun boluntarioa ekitaldi puntual baterako besterik ez bada, boluntariotzaren arloko entitatearen eta boluntarioaren arteko harreman egonkorrik sortu gabe.

**18. artikulua.** Boluntario izateko debekua zigoraurrekariak dituzten pertsonentzat.

1. Ezin izanen dira boluntarioak izan honako hauengatik ezereztu gabeko zigoraurrekariak dituzten pertsonak: emakumearen aurkako indarkeria delituengatik; bizitzaren, osotasun fisikoaren, askatasunaren, osotasun moralaren edo pertsona oren sexu askatasun eta ukigabetasunaren aurkako delituengatik; pertsonen legez kanpoko trafikoko delituengatik edo immigrazio klandestinoagatik edo terrorismo delituengatik. Inguruabar hori frogatuko da delitu horiengatik zigoraurrekaririk ez izateari buruzko erantzukizunpeko adierazpen baten bidez.

2. Boluntariotzaren arloko entitateek, boluntarioen sarbidea hautatzeko eta jarduera gainbegiratu-

tzeko duten eskubidea baliatuz, erantzukizunpeko adierazpena eskatuko diete boluntarioei, aurreko apartatuan adierazitako delituengatik zigoraurrekaririk ez dutela adierazteko.

3. Adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten programetan parte hartzeko, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa aurkeztu beharko zaio boluntariotzaren arloko entitateari.

4. Boluntario batek arestian deskribatutako jokatzeren bat egiten badu, edo aldeztu aurretik jakinarazi gabeko zigoraurrekariak dituela egiaztatzen bada, entitateak berehala eten beharko du harekiko elkarlana.

5. Aurreko apartatuetan ezarritakoa galarazi gabe, boluntariotzaren arloko entitateek ezar dezakete, boluntariotza programen helburuen artean, ezereztu gabeko zigoraurrekariak dituzten pertsonak jardun boluntarioaren bidez gizarteratzea dagoela. Halakoetan, entitateak boluntariotza programan bertan jasoko ditu haren ezaugarri bereziak.

##### 19. artikulua. Harremana amaitzea.

1. Boluntarioaren eta entitatearen arteko harremana honako arrazoi hauengatik amaitzen ahalko da:

a) Konpromiso-hitzarmeneko betebeharrak ez betetzea.

b) Boluntariotza arautzen duten printzipio, helburu eta balioen aurkako jarduna.

c) Jardun boluntarioaren hartzaileen edo entitateko langileen eskubideak urratzen dituzten jokabideak.

d) Boluntariotzaren arloko entitateari berriaz jakinarazitako borondatezko uko egitea.

e) Boluntariotzaren arloko entitatean jardunik ez izatea urtebetez jarraian.

2. Boluntariotzaren arloko entitateek beti bermatu beharko diete kasuko boluntarioari entzunaldia emateko eskubidea baliatzeko aukera konpromiso-hitzarmena amaitu aurretik, aurreko apartatuko a), b) eta c) letretan aurreikusitako kasuetan.

**20. artikulua.** Gatazkak konpontzeko bitartekaritza.

Konpromiso-hitzarmenean jasotako ituna bada, boluntariotzaren arloko entitatearen eta boluntarioen artean sortzen diren gatazkak bitartekaritzaren mende jarriko dira, gai zibiletako bitartekaritzari buruzko araudian xedatutakoaren arabera, eta, itunik ez badago, jurisdikzio eskudunaren mende, arau prozesalean ezarritakoari jarraiz.

**IV. KAPITULUA****Jardun boluntarioaren hartzaileak****21. artikulua.** Kontzeptua.

Jardun boluntarioaren hartzaile dira jardun hori zuzentzen zaien pertsona fisikoak, taldeak edo komunitateak, haien bizi-baldintzak eta -kalitatea hobetzea, premiak asetzea, eskubideak babestea edo beste edozein onura edo ondasun sozial defendatzea helburu.

**22. artikulua.** Jardun boluntarioaren hartzaileen eskubideak.

Jardun boluntarioaren hartzaileek eskubide hauek dituzte:

a) Norberaren eta familiaren askatasuna, berdintasuna, duintasuna eta intimitatea erabat errespetatuko direla bermatzeko eskubidea.

b) Jarduna garatu aurretik, boluntarioen jardueren prozesu osoan dituzten helburu, ezaugarri, iraupen eta garrantziari buruzko informazio eta orientazio nahikoa, argia eta beren inguruabarretara egokitua jasotzeko eskubidea, bai eta parte hartzeko eskubidea ere, eta, hala badagokio, jardura horien diseinuan zein ebaluazioan entzunak izatekoak.

c) Ekintza boluntarioen jarraitutasuna, kalitatea, eraginkortasuna eta egokitasuna bermatzea, eta ingurune hurbilean gauzatzea, bereziki ekintza horietatik zerbitzu edo prestazio pertsonalak eratortzen direnean.

d) Boluntarioekin gatazkarik sortuz gero, boluntarioen koordinatzailearen esku-hartzea eskatzeko eskubidea.

e) Boluntarioa edo, hala badagokio, esleitutako programa aldatzea eskatzeko eta onartzeko eskubidea, inguruabarrek horretarako aukera ematen badute, zerbitzu horiek eskuratzeko askatasunaren esparruan, horrek barne hartzen baitu une oro uko egiteko aukera, erabakia jasota geratzeko aukera ematen duen edozein formularen bidez.

f) Beren datu pertsonalen tratamendua datuen babesaren arloan indarrean dagoen legeriaren arabera izateko eskubidea.

g) Foru lege honek edo aplikagarria den araudiak aitortzen ahal dion beste edozein eskubide.

**23. artikulua.** Jardun boluntarioaren hartzaileen betebeharrak.

Jardun boluntarioaren hartzaileek betebeharrak hauek dituzte:

a) Boluntarioei laguntzea eta haien lana erraztea, eta pertsona guztiak duintasunez tratatzea.

b) Boluntarioei edo entitateei kortesia hutsetik harago doan gogobetetze edo kontraprestazio ekonomiko edo materialik ez eskaintzea, ez eta dagokion ekintzatik edo programatik harago doazen jarduketak eskatzea ere.

c) Dagozkion programak gauzatzean boluntarioek jakinarazten dizkieten neurri teknikoak, segurtasunekoak eta osasungarritasunekoak betetzea, bai eta orientabideak, arauak eta argibideak ere.

d) Aurreko artikuluko e) letran ezarritako eskubideen erabileraren berri ematea boluntariotzaren arloko entitateari.

e) Boluntarioaren datu pertsonalak errespetatzea, datuak babesteko araudiaren arabera.

f) Foru lege honetan edo araudi aplikagarrian ezarritakoak dakartzan gainerako betebeharrak betetzea.

**IV. TITULUA****Nafarroako administrazio publikoen eginkizunak boluntariotzaren arloan****I. KAPITULUA****Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa****24. artikulua.** Eginkizunak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, bere eskumenen esparruan, honako eginkizun hauek ditu boluntariotzaren arloan:

a) Herritarrek jardun boluntarioan parte har dezaten sustatzea eta bultzatzea, boluntariotzaren arloko entitateen bitartez.

b) Gizartea sentsibilizatzea jardun boluntarioaren eta haren balioen inguruan, eta informazioa eta sustapena bultzatzea Nafarroako Foru Komunitate osoan eta, bereziki, landa eremuan.

c) Boluntariotzaren arloko entitateen jarduerak bultzatzea eta erraztea.

d) Jardun solidarioa garatzeko baliagarri izan diren baliabideak jartzea, eta azterlanak, estatistikak, planak eta estrategiak lantzea.

e) Boluntariotzaren arloko gainerako eragileekin lankidetzan aritzea eta sareak eratzea.

f) Nafarroako Boluntariotzaren Plana lankidetzan egitea, diseinutik hasi, gainerako etapetatik segi eta ebaluaziora arte, boluntariotzaren arloko funtsezko eragileekin eta herritarrekin oro har.

g) Boluntarioen eta boluntariotzaren arloko entitateen etengabeko prestakuntza sustatzea.

h) Administrazioen arteko eta lurraldeen arteko koordinazioa eta lankidetzaren sustatzea, bai administrazioan diren mailen artean bai boluntariotzaren arloko funtsezko eragileekin, bereziki boluntariotzari lotutako balioen sensibilizazio eta sustapen funtzioetarako.

i) Boluntariotzaren arloko entitateei laguntzea, beren jarduerak garatzeko eta beren boluntariotza kudeatzeko baliabideak izateko aukera erraztuz.

j) Adingabeak, adinekoak, desgaitasuna duten pertsonak eta beste kolektibo zaurgarri batzuk boluntariotza jardueretan sar daitezela sustatzea, eta aukera berdintasuna eta irisgarritasun unibertsala bermatzea.

k) Boluntariotzaren lanari aitortza publikoa ematea, ekitaldien, sarien eta bestelako ekimenen bidez.

l) Unibertsitateekin eta maila guztietako ikastetxeekin koordinatzea, boluntariotza sustatzeko, prestakuntza integralerako eta balio solidarioak sustatzeko tresna gisa.

m) Lankidetzaren hitzarmenak ezartzea beste entitate publiko eta pribatu batzuekin, boluntariotzaren arloko programak eta proiektuak garatzeko.

n) Boluntariotzaren arloko entitateei eta boluntarioei eragiten dieten administrazio prozedurak sinplifikatzea.

ñ) Genero ikuspegi integratua txertatzea zeharkotasunez boluntariotzaren arloko politika publikoak diseinatzen, gauzatzen eta ebaluatzen.

o) Ekintza zehatzen bidez bermatzea emakumeen ahalduntzea eta modu inklusiboan eta ekitaliboan parte-hartzea jardun boluntarioan.

**25. artikulua.** Boluntariotzari laguntzeko tresnak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak aholku eta laguntza emanen die Nafarroako boluntariotzaren arloko eragileei, boluntariotzaren espezializatutako zerbitzu baten bidez.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak webgune bat izanen du, eduki honekin:

a) Borondatez atxikitzen zaizkion boluntariotzaren arloko entitateak.

b) Boluntarioak behar dituzten boluntariotzaren arloko entitateen ekintzak.

c) Jardun boluntarioan aritzeko beren burua eskaintzen duten boluntarioak.

d) Boluntariotzaren arloko entitateen eskura dauden baliabideak.

e) Nafarroako Boluntariotzaren Plana.

f) Boluntariotzari buruzko albisteak.

g) Boluntariotza sustatzeko baliabideak.

**26. artikulua.** Boluntariotzaren mahai teknikoa.

1. Nafarroako Foru Komunitateko jardun boluntarioaren jarraipena egiteko, boluntariotzaren mahai tekniko bat sortuko da.

2. Boluntariotzaren mahai teknikoa boluntariotza programak bultzatzen dituzten departamentuetako teknikari esperientziadunek osatuko dute.

3. Boluntarioak koordinatzeko eskumena duen zuzendaritza nagusiko titularrak izendatuko ditu mahaiko kideak, boluntariotza programak sustatzen dituzten zuzendaritza nagusiek proposatuta.

4. Boluntariotzaren mahai teknikoak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Laguntza teknikoak ematea jardun boluntarioa sustatzeko erabaki publiko-administratiboak aztertzeko, planifikatzeko eta kudeatzeko.

b) Departamentuak koordinatzea ikuspuntu teknikotik.

c) Nafarroako Boluntariotzaren Planean jasotako konpromisoak betetzen direla zaintzea eta Nafarroako Boluntariotzaren Kontseiluari horren jarraipenaren berri ematea.

## II. KAPITULUA

### Nafarroako toki entitateak

**27. artikulua.** Toki entitateen eginkizunak.

Nafarroako toki entitateek, beren eskumenen esparruan, honako eginkizun hauek izanen dituzte boluntariotzari dagokionez:

a) Jarduera boluntarioa sustatzea.

b) Boluntariotzaren arloko entitateak eta boluntarioak sustatzea.

c) Boluntariotzaren arloko entitateak koordinatzea.

d) Boluntariotzaren arloko eragileekiko lankidetzaren sustatzea.

## V. TITULUA

### Hezkuntza sistema eta boluntariotza

**28. artikulua.** Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza sisteman boluntariotza sustatzea.

Nafarroako Gobernuak, boluntariotzaren arloko entitateen bitartez, ikastetxeek boluntariotza programak edo ekintza puntualak ezartzea sustatuko du, adingabeen artean zerbitzu trukeko ikasketa eta boluntariotzaren balioak sustatzeko.

**29. artikulua.** Unibertsitateko hezkuntza sisteman boluntariotza sustatzea.

1. Unibertsitateek, indarrean dagoen legeriaren arabera, boluntariotza sustatzen ahalko dute. Unibertsitateetako boluntariotza jarduketan helburuak izanen dira, besteak beste, unibertsitate komunitatea boluntariotzari buruz trebatzea eta sensibilizatzea.

2. Unibertsitateek boluntariotzaren inguruko irakaskuntza eta ikerketa maila guztietan sustatzen ahalko dute. Horretarako, lankidetzak hitzarmenak sinatzen ahalko dituzte administrazio publikoekin eta beste instituzio eta erakunde publiko edo pribatu batzuekin, eta horiek ikastaroak, azterlanak, analisiak eta ikerketak eskatzen ahalko dizkiete unibertsitateei.

3. Unibertsitateek beren ikasleek egindako boluntariotza jardueren aitopren akademikorako formulak ezartzen ahalko dituzte, baldin eta unibertsitate antolamenduaren arloan aplikatzekoa den araudian ezarritako baldintza akademikoak betetzen badituzte eta boluntariotzaren balioak eta printzipioak errespetatzen badituzte.

## VI. TITULUA

### Boluntariotza planifikatu eta sustatzeko tresnak

#### I. KAPITULUA

##### Nafarroako Boluntariotzaren Plana

**30. artikulua.** Nafarroako Boluntariotzaren Plana.

1. Nafarroako Boluntariotzaren Plana Foru Komunitatean jardun boluntarioa planifikatzeko tresna nagusia da. Era berean, Nafarroako boluntariotzaren arloko funtsezko eragilean jardunaren ibilbide-orrria izanen da.

2. Helburu nagusia da boluntariotzaren garapena sustatzea, Nafarroako boluntariotza indartzea eta hobetzea helburu duten konpromiso komun bidez.

3. Planak, gutxienez, eduki hau izanen du:

a) Boluntariotzaren arloko helburu estrategikoen eta lehentasunen, arlo horretako gizarte eskarrei arreta berezia eskainita.

b) Boluntariotza sustatzeko eta sendotzeko berariazko ekintza ildoak.

c) Gobernantza mekanismoak eta organoak, kontuan hartuta, organoen kasuan, emakumeen eta gizonen arteko presentzia orekatuaren printzipioa.

d) Hartutako konpromisoak.

e) Konpromisoak betetzeko egutegia.

f) Ekintzen aldizkako jarraipena eta ebaluazioa egiteko adierazleak.

g) Kontu-ematea publikoki egiteko modua.

**31. artikulua.** Nafarroako Boluntariotzaren Plana egitea eta onestea.

1. Plana koordinatzea boluntariotzaren koordinazioaren arloan eskumena duen departamentuari dagokio.

2. Diseinutik bertatik, planak Nafarroako boluntariotzaren arloko funtsezko eragile guztien parte-hartzea izan behar du, eta aurreko planaren ebaluazioa kontuan hartuko du.

3. Planari eta haren ebaluazioei buruzko txostena eginen du Nafarroako Boluntariotzaren Kontseiluak.

4. Nafarroako Gobernuak onetsiko du plana.

## II. KAPITULUA

### Aitortzak eta identifikazio-akreditazioak

**32. artikulua.** Nafarroako boluntarioaren saria.

1. Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Boluntariotzaren Kontseiluak proposatuta, Nafarroako boluntarioaren saria ematen ahalko die, bi urtean behin, pertsona fisiko bati eta pertsona juridiko bati, arlo hauetan nabarmentzeagatik: boluntariotzari eskainitako dedikazioagatik, jarduera boluntarioan gizarte eredia izateagatik edo beren jarduketa boluntarioek Nafarroan eremu horretan garrantzi berezia lortzeagatik.

2. Erregelamendu bidez ezarriko dira sari hori emateko betekizunak.

**33. artikulua.** Beste aitortza eta ekimen batzuk.

Nafarroako administrazio publikoek eta boluntariotzaren arloko entitateek boluntariotza bultzatzen eta sustatzen duten beste jarduera, aitortza, sari eta jarduera batzuk antolatzen ahalko dituzte.

**34. artikulua.** Gaitasunak aitortzea.

1. Boluntariotzaren arloko entitateek beren programa eta ekintzetan parte hartzen duten pertsonen zerbitzu-prestazioa aitortuko dute. Aitortza horrek, gutxienez, eduki hau izanen du:

- a) Boluntarioaren identifikazio datuak.
- b) Entitatearen identifikazio datuak.
- c) Egindako jardun boluntarioaren datak, iraupena eta izaera.
- d) Jardun esparruak eta programak, lekua eta egindako ekintza zehatzak, hala badagokio.
- e) Eskuratutako prestakuntza, gaitasun eta trebetasun zehatzak.

2. Nafarroako Gobernuak laguntza emanen die boluntariotzaren arloko entitateei artikuluan honetan arautzen den aitortzarako.

**35. artikulua.** Identifikazio-akreditazioa.

1. Boluntariotzaren arloko entitateek akreditazio bat emanen diote boluntarioari, bere burua identifikatzeko eta boluntario lana egiteko gaitzeko.

2. Nafarroako Gobernuak laguntza emanen die boluntariotzaren arloko entitateei artikuluan honetan arautzen den akreditaziorako.

### III. KAPITULUA

#### Prestakuntza

**36. artikulua.** Boluntarioen prestakuntza plana.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak jardun boluntarioa sustatuko du, boluntarioen etengabeko prestakuntzarako plan bat ezarriz. Plan horrek beharrianak identifikatu eta prestakuntza ekintzak ezarriko ditu. Horretarako, kontuan hartu beharko ditu boluntariotzaren arloko entitateen eta boluntarioen premiak.

**37. artikulua.** Nafarroako jardun boluntarioaren eskola.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak Nafarroako jardun boluntarioaren eskola sortuko du, aurreko artikuluan jasotako planaren esparruan prestakuntza jardueren eskaintza bateratu eta koordinatzen duen tresna izateko.

2. Boluntariotzaren koordinazioaren arloan eskumena duen departamentuari dagokio eskolak bultzatutako jarduerak kudeatzea, oinarrizko prestakuntzako eta espezializazioko programak ezarriz.

### IV. KAPITULUA

#### Boluntariotzaren arloko entitateen arteko aliantzak

**38. artikulua.** Boluntariotzaren arloko entitateen plataformak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa elkarlanean arituko da boluntariotzaren arloko entitateekin, baldin eta haien sendotasuna eta ordezkagarritasuna erraztu eta jarduna hobetzeko plataformak sortzea erabakitzen badute.

**39. artikulua.** Nafarroako Boluntariotzaren Sarea.

1. Nafarroako boluntariotzaren arloko eragileak elkarlanean arituko dira sarean, Nafarroako boluntariotzaren ekosistema indartzeko eta bultzatzeko.

2. Nafarroako Foru Komunitateak lagundu eta erraztuko du sareko lan hori.

### V. KAPITULUA

#### Boluntariotzaren arloko entitateen erregistroa

**40. artikulua.** Boluntariotzaren arloko entitateen erregistroa.

1. Boluntariotzaren arloko entitateen erregistroak Nafarroako boluntariotzaren arloko entitateak ikusarazteko balioko du, bai eta boluntariotzaren arloko entitateei zuzendutako dirulaguntzak eskuratzeko ere.

2. Erregistroa boluntariotzaren koordinazioaren arloan eskumena duen departamentuari dago atxikita.

3. Inskripzioa borondatezkoa, publikoa eta doakoa da, eta eskaera aurkeztuz eginen da. Eskaera horretan adieraziko da entitatea zer irabazi-asmorik gabeko entitateen erregistro ofizialetan dagoen inskribatuta –salbu eta bere izaera dela-eta nahitaezkoa ez bada–, eta boluntariotza jarduerak egiten direla eta foru lege honetan xedatutakoa betetzen dela deklaratu da.

### VI. KAPITULUA

#### Boluntariotza sustatzea enpreetan

**41. artikulua.** Boluntariotza korporatiboa.

1. Enpresek beren enplegatuen jardun boluntarioa sustatu eta bultzatzen ahalko dute boluntariotzaren arloko entitateen boluntariotza programen bidez.

2. Jardun boluntario korporatiboa gauzatuko dute askatasunez eta modu altruistan parte hartzea erabakitzen dutenek.

3. Administrazio publikoek boluntariotza korporatiboa garatzen lagunduko dute.

## VII. TITULUA Parte-hartzea

**42. artikulua.** Nafarroako Boluntariotzaren Kontseilua.

1. Nafarroako Boluntariotzaren Kontseilua kide anitzeko organo aholku-emailea eta parte-hartzailea da, boluntariotzaren interesak defendatzeko.

2. Kontseilua boluntariotzaren koordinazioaren arloan eskumena duen departamentuari dago atxikita.

3. Kontseiluak eginkizun hauek ditu:

a) Administrazio publikoei aholku ematea boluntariotzarekin zerikusia duten politika publikoak formulatu, gauzatu eta ebaluatzeko, eta Nafarroako Boluntariotzaren Plana egiten parte hartzea.

b) Nafarroako Gobernuari proposatzea Nafarroako boluntarioaren saria nori eman.

c) Boluntariotzaren arloko eragileen arteko interakzioa eta koordinazioa bermatzea.

d) Azterketak, txostenak eta gomendioak egitea proposatzea.

e) Boluntariotzaren aldeko ekimenak sustatzea.

f) Boluntariotzaren arloko gaiak arautzen dituzten xedapen orokorren proiektuei buruzko txostenak egitea.

**43. artikulua.** Osaera.

1. Nafarroako Boluntariotzaren Kontseilua honako hauek osatuko dute, gizon eta emakumeen presentzia orekatua bermatuta:

a) Kontseiluko burua: Kontseilua atxikita duen departamentuko titularra.

b) Buruordea: Kontseiluaren alderdi sozialak bere kideen artean izendatutako eta hautatutako pertsona bat. Ondorio horietarako, alderdi soziala apartatu honetako d), f), g) eta h) letretan adierazitako pertsonak izanen dira.

c) Boluntariotza programak bultzatzen dituzten departamentuetako zazpi ordezkari.

d) Boluntariotzaren arloko entitateen zazpi ordezkari, ekitatea eta pluraltasuna bermatzen duten prozeduren bidez hautatuak.

e) Toki entitateen ordezkari bat, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak izendatua.

f) Hiru boluntario, ekitatea eta pluraltasuna bermatzen duten prozeduren bidez hautatuak.

g) Boluntariotzaren arloko bi aditu, esparru akademikokoak, hezkuntza esparrukoak edo esparru profesionalekoak.

h) Nafarroako Foru Komunitatean ordezkartza handiena duten bi sindikatuetakordezkari bana.

2. Kontseiluko kideen izendapena Kontseilua atxikia duen departamentuko titularrak eginen du.

3. Idazkaria izanen da boluntarioak koordinatzeko eginkizunak esleituta dituen ataleko burua. Idazkariak hitza izanen du, baina botorik ez.

4. Boluntariotzaren arloko entitateetako ordezkariak, boluntarioak eta adituak diren kontseilukideen agintaldia lau urtekoa da.

5. Erakunde publikoetako ordezkariak kargua utziko dute aukeratuak izateko kargua uzten dutenean.

6. Kontseiluak lantalde espezializatuak eratzen ahalko ditu boluntariotzarekin lotutako gai zehatzei heltzeko. Lantalde horiek erakunde parte-hartzaileen tipologiaren arteko oreka bermatu beharko dute.

**Lehen xedapen gehigarria.** Babes zibilaren arloko boluntariotza.

Babes zibilaren eta larrialdien arretaren arloko jardueretan, boluntariotzaren eta boluntarioen erregulazioa horien araudi espezifikoan ezarriko da, eta foru lege hau osagarri gisa aplikatuko da.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Boluntarioen aitortza publikoak.

1. Foru lege hau indarrean jarri eta urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak azterlan bat eginen du pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan boluntarioei kenkariak jartzeko har daitezkeen neurriei buruz.

2. Nafarroako Gobernuak boluntarioen aldeko bestelako neurri publikoak aztertuko ditu.

**Lehenbiziko xedapen iragankorra.** Boluntariotzaren arloko entitateen betebeharrak.

Foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean, boluntariotzaren arloko entitateek onartu beharko dituzte foru lege honen 14. artikuluan ezarritako betebeharrak eta jardun boluntarioaren plan bat izan, 15. artikuluan arautzen den moduan.

**Bigarren xedapen iragankorra.** Boluntariotzaren arloko entitateen erregistroa.

1. Foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean Nafarroako Gobernuak beste erregelamendu bat onetsiko du boluntariotzaren arloko entitateen erregistroa arautzeko.

2. Aurreko apartatuan ezarritako araudiak indarra hartu arte, indarrean jarraituko du Gizarte Politiketako kontseilariaren maiatzaren 13ko 306/2014 Foru Aginduak, Ekintza Boluntarioko Entitateen Errolda arautzen duenak.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** Arauak indargabetzea.

Indarrik gabe geratzen da Nafarroako Bolondres-lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru

Legea, bai eta foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo beheragoko arau guztiak ere.

**Azken xedapenetako lehena.** Arauak emateko gaikuntza.

Boluntariotzaren koordinazioaren arloan eskumena duen departamentuaren titularrari ahalmena ematen zaio foru lege hau garatu eta betearazteko beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapen guztiak eman ditzan.

**Azken xedapenetako bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## 11-25/LEY-00015. Foru-lege proiektua, Zientziari eta Teknologiar buruzko ekainaren 27ko 15/2018 Foru Legea aldatzea xede duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2025eko abenduaren 30ean hartutako Erabakiaren bidez, Zientziari eta Teknologiar buruzko ekainaren 27ko 15/2018 Foru Legea aldatzea xede duen foru-lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Xedatzea Zientziari eta Teknologiar buruzko ekainaren 27ko 15/2018 Foru Legea aldatzea xede duen foru-lege proiektua prozedura arruntari jarraituz izapidetu dadila.

2. Unibertsitate, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko Batzordeari esleitzea proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik hamar egun balioduneko epea irekiko da, **2026ko otsailaren 2ko eguerdiko 12:00etan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote foru-lege proiektuari.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## Foru-lege proiektua, Zientziari eta Teknologiar buruzko ekainaren 27ko 15/2018 Foru Legea aldatzea xede duena

### ATARIKOA

Ekainaren 27ko 15/2018 Foru Legea onestearekin (Zientziari eta Teknologiar buruzko Foru Legea), foru lege horrek ezarri du zer bideri jarraitu behar zaion, geure komunitatean, I+G+b arloan, eremu publikoan nahiz pribatuan. Foru lege hori aplikatzeak ekarri zuen sortzea Berrikuntzaren Behatokia eta I+G+b arloko Aholku Kontseilua, besteak beste. Halaber, abiarazi zen Nafarroako I+G+b Sistemako Eragileen Erregistroa, otsailaren 28ko 2E/2020 Foru Aginduaren bidez, zeinaren bidez arautzen baita Nafarroako I+G+b sisteman integratutako exekuzioko eragileen egiaztapenerako prozedura eta beren inskripzioa aipatu eragileen erregistro publikoan. Hala, ahalbidetu zen Nafarroako I+G+b Sistema antolatu eta koordinatu bat.

Aipatutako foru legea indarrean sortu ondotik, metatutako eskarmentuak erakutsi du zein garrantzitsua den araudi bizi bat izatea, lagun egiten diona ezagutzaren eta berrikuntzaren bilakaerari. Eraberritze honen helburua da erdietsitako lorpenak finkatzea eta, era berean, sistema behar diren lanabesez hornitzea, etengabe eguneratzeko.

Ordutik, sistemak aurrera egin du, eta osatu egin da, gaur den horretara iritsi arte: funtsezko sistema bat, I+G+b bultzatzeko eta bikaina izateko Nafarroan, non beste eragile batzuen artean, bai baititu bi unibertsitate, osasun ikerketarako institutu bat, hiru ikerketa zentro eta sei zentro teknologiko, eta horiei gehitu behar zaizkie, jada, enpresen I+G+b arloko hamar unitate eta hogeita bat entitate bakan, denek ere beren ezaugarri eta jarduerak dituztela. Horregatik, orain, inportantea da hausnartzea eragile horiek bete dezaketen eginkizunaz eta horiek antolatzeko moduz, ahalbidetu dadin I+G+b Sistema dinamikoago bat, kohesionatuagoa eta gizartean eragin handiagoa duena.

Horrenbestez, foru lege hori aldatuz aukera ematen da entitate bakanen azpikategoriak egiteko, erregelamendu bidezko garapenaren bidez, eta, hala, posible izanen da Nafarroako I+G+b Sistema arautzea errealitateari gehiago lotuz.

Foru legerako jaso diren aldaketetako bat loturik dago emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzearekin, emakumeen desberdinkeria egoerak ezabatzearekin, eta, kasu bada, emakumeen eta haien presentziaren diskriminazioa ezabatzearekin, zientzia eta berrikuntza jardueretan, erabakitze organoetan eta lan baldintzen arloan. Berdintasun arloko araudia asko aldatu da, bai estatuan, bai Nafarroako Foru Komunitatean. Estatuan, nabarmentzekoa da 901/2020 Errege Dekretuak eta 902/2020 Errege Dekretuak ekarritako erregelamendu bidezko garapena. Orobat, nabarmentzekoa da abuztuaren 1eko 2/2024 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen Ordezkaritza Parekatuari buruzkoa. Nafarroako Foru Komunitatean, nabarmentzekoa da onetsi izana 17/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzkoa. Europan ere aurrera egin da berdintasun printzipioa eta genero ikuspegia sar daitezzen zientziarekin, ikerketarekin eta berrikuntzarekin lotutako jardueretan. Horregatik, inportantea da lan egitea inklusioa eta dibertsitatea hobetu daitezzen ikuspuntu guztietatik.

Era berean, denboraren joanak berak eskatzen du eguneratzea I+G+b-rako bideratutako inbertsio helburuak Nafarroako, eta bat egitea dugun errealitatearekin, zeina jaso baita Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Plan berriaren jarraipenean.

Azkenik, beste aldaketa batzuk ere egiten dira, helburu baitute egungo foru legearen idazketa finitzea, araua hobeki aplikatu dadin, gehiago lot dakion Nafarroako I+G+b Sistemari. Horien bidez sartu nahi dira planteamendu batzuk, lagungarri izaten ahal direnak I+G+b gehiago sortzeko, eragin handiagokoak.

Aldaketa honen bidez, Nafarroako Foru Komunitateak berresten du zientziarekin, teknologiarekin eta berrikuntzarekin duen konpromisoa, motorrak baitira aurrerapena izan dadin ekonomian, gizartean eta ingurumenean, eta bertako politikak bideratuko dira bikaintasunera, berdintasunera, jasangarritasunera eta balioa sortzera, Nafarroako gizarte guztiarentzat.

**Artikulu bakarra.** Aldatzea 15/2018 Foru Legea, ekainaren 27koa, Zientziari eta Teknologiari buruzkoa.

**Bat.** Aldatzen da 3.7 artikulua, eta hemendik aurrera honela idatzita agertuko da:

“7. Ikasketa zientifiko-teknikoen arloko prestakuntza sustatzea, maila guztietan, lanbide heziketan, unibertsitatean eta doktoregoetan, gizartearen beharrak ase eta orekatzen lagundu beharrez. Garrantzia emanen zaio bereziki emakumeak STEM

(zientzia, teknologia, ingeniariaritz eta matematika) ikasketetan sartzeari”.

**Bi.** Aldatzen da 3.13 artikulua, eta hemendik aurrera honela idatzita agertuko da:

“13. Laguntzea zientzia, teknologia eta berrikuntza politika eta planak koordinatu daitezzen Estatuko autonomia-erkidegokoekin, Administrazio orokorrekoekin eta Europar Batasunekoekin.

**Hiru.** Aldatzen da 6.2 artikulua, eta hemendik aurrera honela idatzita agertuko da:

“2. Honako hauek dira Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileak: I+G+b arloan, exekuzio, dinamizazio, hedapen, dibulgazio, finantzaketa nahiz koordinazio eginkizunak betetzen dituzten eragile publiko eta pribatu guztiak”.

**Lau.** Aldatzen da 7.1 artikuluko e) apartatua, eta hemendik aurrera honela idatzita agertuko da:

“e) Entitate bakanak: entitateak, funtsezko eginkizun gisa dutenak gizartean sustatzea heda daitezzen ezagutza zientifikoa eta I+G+b arloaren emaitzak, eta, orobat, prestakuntza izatea zientzietan, matematiketan, ingeniarietan eta teknologiaren arloan, dinamizatzea berrikuntzaren ekosistema, laguntzea I+G+b proiektuei, horretarako gaitasunik izanez gero, eta I+G+b arloarekin lotutako bestelako eginkizunak”.

**Bost.** Aldatzen da 7.2 artikuluko f) apartatua, eta hemendik aurrera honela idatzita agertuko da:

“f) Zuzendaritza-organo parekidea izatea, non izanen baita emakumeen eta gizonen presentzia orekatua, halako moduz non sexu bakoitzeko pertsonak ez diren izanen ehuneko hirurogei baino gehiago, ez eta ehuneko berrogei baino gutxiago ere. posible izanen da ez aplikatzea parekidetasun irizpidea eta emakumeen eta gizonen presentzia orekatua, jarraikiz ekintza positiboaren printzipioari, baldin emakumeak ehuneko hirurogei baino gehiago badira; betiere, justifikatu egin beharko da. Gainerako ez-betetzeak justifikatu egin beharko dira, muntazko arrazoi objektiboen bidez, behar bezala arrazoiturik. Halakoetan, ekintza plan bat ezarri beharko da, helburu duena betetzea ordezkaritza parekidea eta presentzia orekatua”.

**Sei.** Aldatzen da 8.2 artikuluko b) Bigarrena apartatua, eta hemendik aurrera honela idatzita agertuko da:

“Bigarrena. Ardura handieneko postua –zuzendar nagusia edo antzekoa– hautatzea prozesu ireki, ez baztertzaille eta garden baten bidez, non baloratuko baitira doktore titulua izatea zentroak lantzen duen I+G+b arloren batean, master bat enpresen zuzendaritza eta administrazioan, argital-

penak, patenteak eta arloko nazioarteko esperientzia. Hautapena eginen dute eskudantzia hori duten zuzendaritza organoek. Hautapen prozesu horretan kontuan hartuko da emakumeen eta gizonen presentzia orekatuaren printzipioa izatea, eta eragileek frogatu beharko dute ezen, postu horiek betetzeko izangaien zerrendan, sexu bakoitzeko pertsonak ez direla ehuneko hirurogei baino gehiago, ez eta ehuneko berrogei baino gutxiago ere, salbu eta muntazko arrazoi objektiboak daudenean, behar bezala justifikatuak. Posible izanen da ez aplikatzea emakumeen eta gizonen presentzia orekatuaren printzipioa, jarraikiz ekintza positiboaren printzipioari, baldin emakumeak ehuneko hirurogei baino gehiago badira; betiere, justifikatu egin beharko da. Unibertsitateek ez dute betebeharrak hori bete beharrik”.

Zazpi. Aldatzen da 8.2 artikuluko c) apartatua, eta hemendik aurrera honela idatzita agertuko da:

“c) Berdintasunarena: emakumeen eta gizonen arteko berdintasun plan bat izatea, egin eta aplikatu dena Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren IV. tituluko III. kapituluaren ezarritako edukiarekin, eta lan arloko legerian adierazitako moduan negoziatua”.

Zortzi. 9.1 artikulua aldatzen da, eta hemendik aurrera honela idatzita agertuko da:

“1. Nafarroako I+G+b Sistemaren (SINAI) I+G+b arloko jarduerak egiten dituzten exekuzioko eragile gisa akredita daitezke unibertsitateak, ikerketa zentroak, osasun ikerketarako institutuak eta zentro teknologikoak. Akreditazioa lortzeko, 7. artikuluan eskatutako baldintzak betetzeaz gain, honako hauek ere bete beharko dituzte:

a) Ikertzaile doktoratuak izatea plantillan.

b) Plantillako ikertzaile doktoratuen artean, bete beharko da emakumeen eta gizonen presentzia orekatuaren printzipioa, halako moduz non sexu bakoitzeko pertsonak ez diren izanen ehuneko hirurogei baino gehiago, ez eta ehuneko berrogei baino gutxiago ere. Posible izanen da ez aplikatzea emakumeen eta gizonen presentzia orekatuaren printzipioa, jarraikiz ekintza positiboaren printzipioari, baldin emakumeak ehuneko hirurogei baino gehiago badira; betiere, justifikatu egin beharko da. Gainerako ez-betetzeak justifikatu egin beharko dira, muntazko arrazoi objektibo bidez, behar bezala arrazoiturik. Halakoetan, ekintza plan bat ezarri beharko da, helburu duena presentzia orekatua betetzea.

c) I+G+b arloko proiektuak egitea.

d) Nazioarteko I+G+b arloko proiektuetan parte hartzea”.

Bederatzi. Aldatzen da 9.3 artikuluko a) Lehen apartatua, eta hemendik aurrera honela idatzita agertuko da:

“Lehen. Aholku emateko nazioarteko batzorde zientifiko-teknologiko bat izatea, zentroa baloratzen duena urtero”.

Hamar. Aldatzen da 11. artikulua izenburua. Hemendik aurrera honela idatzita agertuko da:

“11. artikulua. Entitate bakanak: exekuzio, dinamizazio, hedapen, dibulgazio, finantzaketa eta koordinazio eginkizunetarako eragileak”.

Hamaika. Aldatzen da 11.1 artikuluko d) apartatua, eta hemendik aurrera honela idatzita agertuko da:

“d) Berrikuntzaren ekosistemaren dinamizazio eta/edo finantzaketako bestelako jarduerak egitea”.

Hamabi. Gehitzen dira e) eta f) apartatuak 11.1 artikuluan, eta honela idatzita agertuko dira:

“e) I+G+b proiektuetan parte hartzea, horretarako gaitasunik izanez gero.

f) I+G+b laguntzeko beste jarduerak batzuk”.

Hamahiru. Gehitzen da 11.3 artikulua, eta honela idatzita agertuko da:

“3. Entitate hauek azpikategorietan sailkatu daitezke, egiten dituzten jardueren arabera egoki jotzen direnetan, erregelamenduaren bitartez, hau da, Nafarroako I+G+b Sistemaren integratutako exekuzioko eragileak nola egiaztatu eta eragile horiek erregistro publikoan nola inskribatu arautzen duen erregelamenduaren bitartez”.

Hamalau. Aldatzen da 13.2 artikulua, eta hemendik aurrera honela idatzita agertuko da:

“2. Departamentu horrek kudeatuko du erregistro hori, eguneraturik eta osorik izatearren Nafarroan I+G+b arloan aritzen diren entitateen zerrenda, eta bermatuko du lege honek ezartzen dizkieten betebeharrak betetzen eta gordetzen dituztela, baita erregelamenduz ezarritakoak ere”.

Hamabost. Aldatzen da 17.1 artikuluko j) apartatua, eta hemendik aurrera honela idatzita agertuko da:

“j) Bi pertsona, adostasunez izendatu dituztenak Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan parte hartzeko eskubidea duten sindikatuek”.

Hamasei. Aldatzen da 17.2 artikulua, eta hemendik aurrera honela idatzita agertuko da:

“2. Aipatu pertsonak izendatzerakoan errespetatu behar da emakumeen eta gizonen presentzia orekatuaren printzipioa, halako moduz non sexu bakoitzeko pertsonak ez diren izanen ehuneko hirurogei baino gehiago, ez eta ehuneko berrogei baino gutxiago ere”.

Hamazazpi. Aldatzen da 17.5 artikulua, eta hemendik aurrera honela idatzita agertuko da:

“5. Nafarroako I+G+b arloko Aholku Kontseiluko kide izatea ez da ordainduko, baina joan-etorrien eta egonaldien gastuak ordainduko zaizkie artikuluhonen 1. apartatuko b) eta c) letretan aipatzen direnei, baldin bizi badira Nafarroako Foru Komunitate-tik kanpo”.

Hemezortzi. Aldatzen da 21.1 artikulua, zehazki a) eta ñ) apartatuak, eta hemendik aurrera honela idatzita agertuko dira:

“a) Zientziako eta ikerketako talentua sustatzeko neurriak, honako hauen bidez: doktorego aurreko eta ondoko bekak, industriako doktoregotarako laguntzak, ikertzaileen mugikortasunerako laguntzak eta I+G+b proiektuak egiteko iker-tzaileak eta teknikariak kontratatuzko laguntzak”.

“ñ) Talentua Nafarroako Foru Komunitatera erakartzeko eta fidelizatzeo neurriak, laguntza logistikoko, ekintzailetzarako eta kontratazioa laguntzeko sistemekin”.

Hemeretzi. Gehitzen dira o) eta p) apartatuak 21.1 artikuluan, eta honela idatzita agertuko dira:

“o) Lanbide karrera eta lanbide mugigarritasuna sustatzeko neurriak, Nafarroako I+G+b Sistemako eragileetako langile zientifiko-teknikoentzat”.

“p) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak erosketa publiko berritzaileak egin ditzan sustatzeko eta babesteko neurriak”.

Hogei. Kentzen da 22.2 artikulua.

Hogeita bat. Aldatzen da 28 artikulua, eta hemendik aurrera honela idatzita agertuko da:

“28. artikulua. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileentzako laguntza deialdiak, errendimenduaren arabera.”

1. Nafarroako I+G+b Eragileen Sistemako (SINAI) iraunkortasuna segurtatzeko, I+G+b proiektuetarako, ekipamenduko inbertsioetarako eta hedapen eta dibulgazio zientifikoko jardueretarako laguntzen deialdiez gain, beste deialdi batzuk ezartzen ahalko dira, errendimenduaren arabera laguntza

oinarrizkoetarako deialdiak, ekonomikoa ez den jarduera osorik ere finantzatzeko, zentroaren bikaintasuna eta ikerketarako eta transferentziako gaitasuna kontuan hartuta.

2. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen bikaintasunerako orientazioa segurtatzeko, deialdietan, balorazio irizpide gisa erabiliko dira bikaintasun eta hobekuntza adierazleak, honako hauek jasoko dituztenak, besteak beste: plantillako doktore kopurua, argitalpenak, patenteak, sortutako oinarriko teknologikoko enpresak, industriarekin I+G+b arloan izandako proiektuen fakturazioa, lortutako Europako finantzaketa, eta zientzia, teknologia eta berrikuntzarako indarreko Planean ezarritako gainerako adierazleak”.

Hogeita bi. Gehitzen da 29.2 artikulua, eta honela idatzita agertuko da:

“2. Nafarroako I+G+b Sistemako eragileen kasuan, honako berezitasun hauen arabera kudeatuko dira laguntzak eta dirulaguntzak:

a) Dirulaguntzetan, dirua aurretik eman daiteke, eta ez da beharrezkoa izanen justifikatzea funts-horniduraren beharra, ezta bermeak ematea ere, zeinak ezarrita baitaude azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 33. artikuluan (Dirulaguntzei buruzko Foru Legea). Laguntzen oinarri arautzaileetan zehaztuko da egoki den aurrerakin portzentajea, eta izan daiteke onartutako laguntzaren % 100.

b) Onartzen diren unean ordaintzen ahal dira aurrerakinak. Nolanahi ere, urte anitzeko laguntzen kasuan, aurrerakinak ekitaldi bakoitzean ordaintzen ahal dira, proportzioan, onartutako diru-laguntzatik indarreko ekitaldiari dagokiona, alde aurretik egiaztatuta eta likidatuta aurreko ekitaldiari dagozkion zenbatekoak, kasua bada”.

Hogeita hiru. Aldatzen da 30.3 artikulua, eta hemendik aurrera honela idatzita agertuko da:

“3. Gutxienez lau urtekoa izanen da planaren indarraldia”.

Hogeita lau. Gehitzen da 32.6 artikulua, eta honela idatzita agertuko da:

“6. Administrazio publikoak berrikuntza bultzatzea enpresaren sektorean, erosketa publiko berritzailea erabiliz tresna dinamizatzaile gisa”.

Hogeita bost. Aldatzen da xedapen gehigarri bakarria, eta hemendik aurrera honela idatzita agertuko da:

Xedapen gehigarri bakarria. I+G+b arloko inbertsio helburuak Nafarroan.

Botere publikoen jarduketa gidatzeko xedez, honako inbertsio helburu hauek ezartzen dira Nafarroan I+G+b arlorako:

Nafarroan, I+G-b-rako bideratutako inbertsio helburua 2030. urterako: BPGd-aren % 3.

Nafarroan, sektore publikoan I+G+b-rako bideratutako inbertsio helburua 2030. urterako: BPG-aren % 1.

Nafarroan, sektore publikoan I+G-b-rako bideratutako inbertsio helburua 2030. urterako: Nafarroako Aurrekontu Orokorren % 8.

Azken helburu hori taula honetan xehatzen da:

I+G-b plangintza, datu errealen arabera eta 2030erako helburuaren arabera.	2019	2023	2030
Unibertsitateen portzentajea Nafarroako Aurrekontu Orokorretan	1,87	1,92	2,00
I+G+b-aren sustapenerako portzentajea Nafarroako Aurrekontu Orokorretan	1,44	1,77	2,00
Estatuak eta EBk Nafarroako I+G+b-rako egindako ekarpenen portzentajea, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan	2,45	3,39	3,00
Zerga deskontuaren portzentajea Nafarroako Aurrekontu Orokorretan	1,01	0,82	1,00
Guztira, sektore publikoan I+G-b-rako bideratutako inbertsio helburua, Nafarroako Aurrekontu Orokorren gainean	6,77	7,90	8,00

#### **Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**B saila:**  
**FORU-LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **11-25/PRO-00020. Foru-lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzea xede duena**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintzarako ekimena erabiliz, EH Bildu Nafarroa, Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek foru-lege proposamen bat aurkeztu dute, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzea xede duena, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 121., 122., 168., 172., 173. eta 179. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzea xede duen foru-lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**2.** Aipatu foru-lege proposamena presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea, Erregelamenduko 172 eta 173. artikuluetan ezarritako berezitasunekin.

**3.** Foru-lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

**4.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren 12:00etan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Foru-lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzea xede duena**

Etxebizitza duin eta eskuragarria eskuratzeko aukerak arrisku larrian daude Nafarroan. Hamarkadan zehar egiturazko arazo gisa eratzen joan dena, gaur egun benetako gizarte-larrialdi gisa azaleratzen da. Hiri eta lurralde askotan, muturreko egoeran gelditu dira familia asko higiezinaren espekulazioaren, jabetzak esku gutxitan pilatzearen, etxebizitzak turismo-ostatu bihurtzearen eta etxebizitza publikoen falta kronikoaren konbinazioaren ondorioz. Herri xeheak, gazteek eta kolektibo zaugarrituek jasaten dituzte egoerarik larrienak, hala nola bizitoki-prekaritatea eta etxebizitza duina eskuratzeko ezintasuna.

Nafarroan Etxebizitzarako Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 2. artikulua honako hauek ezartzen ditu, besteak beste, Nafarroako administrazio publikoek etxebizitza arloan babestutako jarduketara gisa: lurzorua eskuratu, sustatu eta urbanizatzea, bertan etxebizitza babestuak egiteko asmoz; lurzorua eskuratzeko, bertan errentaren gehieneko prezioa mugatua izan den alokairuko etxebizitzak sustatzeko asmoz; etxebizitza babestuak sustatzea, norberak erabiltzeko, saltzeko edo errentan emateko; etxebizitza edo eraikinak zaharberritzea eta horien obra osagarriak eta urbanizazio obrak, baita ondatsun higiezinak erostea gero zaharberritzeko edo eraisteko ere, betiere ekipamenduetarako espazio libreak lortzeko asmoz egiten bada, eta etxebizitza babestuak edo Foru Komunitateko Administrazioaren bultzada duten jarduketara edo programetan erabilitako etxebizitzak eskuratu, errentan eman eta esleitzea.

Hain zuzen, etxebizitza da, beste ezer baino lehen, gizarte-ongizatearen zutabeetako bat. Azken urteotan prezioen bilakaerak igoarazi ditu, batetik, erosketa-prezioa, eta, bestetik, alokairuen kostua,

prezioei eusteko hainbat mailatan hartutako neurriak gorabehera. Horri alokairuaren merkatuaren portaera gehitzen zaio, non hautematen baita eskaintzaren eskasia, eskariaren igoera, prezioen aldaketa eta ordaintzeko erabili behar den errentaren ehunekoa, eta horrek merkatura sartzeko zailtasunak larriagotzen ditu, eta, ondorioz, etxebizitza duin bat izateko ezintasuna areagotzen du.

Udalekin egindako etxebizitza-merkatu tentsio-natuko eremuetako neurri-planen barruan eta landa-eremuko etxebizitzaren arloko estrategiaren barruan, zenbait lan-ildo planteatu dira alokairu eskuragarriko etxebizitzak sustatzeko Nafarroako udalerrietan. Toki-entitateen eskumenen barruan dago hobariak ematea ondasun higiezinaren gaineko zergan edo lurraren kontribuzioan, eta udalak eskumen hori baliatzearen alde agertu dira etxebizitza hutsak alokairu eskuragarriko merkaturantz mobilizatzeko helburuan laguntzeko.

Dauden etxebizitza hutsak mobilizatzea beharrezkoa da, eta horretarako zenbait neurri eta pizgarri abiatzen ari dira. Merkatu libreko etxebizitza horiek mobilizatu ahal izateko, bi lan-ildo zehatz lantzen ari dira. Alde batetik, Nafarroako Gobernuaren Alokairu Poltsa sustatzea, zenbait bidetatik, batez ere ere dirulaguntzak, bermeak eta zerga-neurriak, etxebizitza-sistema publikoaren barruan eskuragarri dauden etxebizitzak areagotu ahal izateko. Eta, bestetik, babes ofizialeko etxebizitzaren prezio berak edo txikiagoak dituzten ohiko etxebizitza iraunkorretarako kontratuak formalizatzea sustatzea.

Testuinguru horretan, beharrezkotzat eta pre-sazkotzat jotzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzea, bai lurraren kontribuziorako bai eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergarako ezarritako hobariei dagokionez, foru lege horretan hobariaren kausak tasatuta baitaude eta ez baitituzte barne hartzen helburu hori betetzeko behar diren kontzeptuak.

Udal-autonomia errespetatuz, udalek aipatutako udal-zergekin lotutako zenbait hobari ezartzeko aukera arautzen da. Asmoa da udal bakoitzak, berriaz hala arautua badago dagokion ordenantza fiskalean, finkatzea 170 bis) artikuluan aipatutako obretatik zein izaten ahal diren hobariak aplikatzearen xede. Udalerrri bakoitzak finkatzen ahalko du artikulua horretan jasotzen diren hobarietako zein (denak edo horietakoren bat) aplikatzen ahalko diren udal-mugartean.

Zuzenean etxebizitzarekin lotuta dauden tokiko bi zergetan –lurraren kontribuzioan eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan– hobari des-

berdinak jasotzen dira. Lehenik eta behin, lurraren kontribuzioari dagokionez, beste hiru apartatu gehitzen zaizkio 140. artikuluari, halako moduz non hobari berriak ezartzen ahal diren kasu haue-tan: Nafarroako Gobernuko Alokairu Poltsaren bidez alokatuta dauden ondasun higiezinetan; ohiko etxebizitza iraunkor gisa alokatuta dauden ondasun higiezinetan, baldin eta errentamendu-araubideko babes ofizialeko etxebizitzetarako ezarritako prezio berean edo txikiagoan alokatuta badaude, Nafarroan Etxebizitzarako Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 7.3 artikuluan ezarritako kalifikazioaren arabera, eta, azkenik, elkarte edo kooperatiben eraikuntza- eta sustapen-jardueraren xede diren erabilera-lagapeneko ondasun higiezinetan, betiere higiezin horiek bazkideen ohiko bizileku iraunkor gisa erabiltzen badira.

Bigarrenik, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergari dagokionez, zuzenean etxebizitzekin lotuta dauden horietan, hobari berriak batez ere zuzenduta daude alokairura bideratutako etxebizitzak eraikitzeko obren proiektuak gauzatzea babes-tera, halako moduz non zerga hori % 0ean edo % 30ean murrizteak ahalbidetuko baitu etxebizitza horiek eraikitzeko prezioa murriztea, modu mugatua bada ere. Beste hobari bat ere ezartzen da kooperatibek erabilera-lagapenean sustatutako etxebizitza edo ostatuen obretarako, baita udal-katalogoak babestutako eraikuntzetan egindako birgaitze-lanekin zerikusia dutenentarako ere.

Une honetan abian dauden edo obrak hasiak dituzten proiektuak egoten ahal direnez eta aldaketa honetan araututako hobariaren onuradun izaten ahal direnez, kontuan hartuta udalek ahalmena izanen dutela hobariok eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalean txertatzea onesteko, atzeraeraginezko izaerarekin aplikatzeko ahalmena gaitzen da, baina aipatutako udal-ordenantza onartzen denetik atzera urtebeteko mugarekin.

**Artikulu bakarra.** Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzea.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen honako agindu hauek testu hau izanen dute aurrerantzean:

**Bat.** 140. artikulua. Hobariak. Hiru paragrafo berri eranstea:

6. Ordenantza fiskalek zergaren kuotaren % 90erainoko hobaria arautzen ahalko dute Nafarroako Gobernuaren Alokairu Poltsaren bidez errentan dauden ondasun higiezinentzat, alokairuak irauten duen bitartean.

7. Ordenantza fiskalek zergaren kuotaren % 90erainoko hobaria arautzen ahalko dute ohiko etxebizitza iraunkor gisa alokatuta dauden ondasun higiezinentzat, baldin eta errentamendu-araubideko babes ofizialeko etxebizitzetarako ezarritako prezio berean edo txikiagoan alokatuta badaude, Nafarroan Etxebizitzarako Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 7.3 artikuluan ezarritako kalifikazioaren arabera.

8. Ordenantza fiskalek zergaren kuotaren % 90erainoko hobaria arautzen ahalko dute elkarte edo kooperatiben eraikuntza- eta sustapen-jardueraren xede diren erabilera-lagapeneko ondasun higiezinentzat, betiere higiezin horiek bazkideen ohiko bizileku iraunkor gisa erabiltzen badira.

Bi. 170. bis artikulua. Aukerako hoberiak.

1. Ordenantza fiskalek hoberiak arautzen ahalko dituzte zergaren kuotaren gainean:

a) % 50erainoko hobaria, alokairu-araubideko babes ofizialeko etxebizitzetara bakarrik zuzendutako eraikuntza, instalazio edo obretarako.

b) % 25erainoko hobaria, neurri batean alokairu-araubideko babes ofizialeko etxebizitzetarako diren eraikuntza, instalazio edo obretarako, baldin eta guztizko kopuruaren erdia, gutxienez, babes ofizialekoa baldin bada.

c) % 50erainoko hobaria, kooperatibek erabilera-lagapenean sustatutako etxebizitza edo ostaluen eraikuntza, instalazio edo obretarako.

d) Zergaren kuotaren % 90erainoko hobaria, eguzki-energiaren edo beste energia berriztagarri batzuen aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak txertatzen dituzten eraikuntza, instalazio edo obretarako. Hoberiak horren aplikaziorako, beharrezkoa izanen da beroa sortzeko instalazioetan administrazio eskudunaren homologazioa duten kolektoreak egotea.

e) % 50erainoko hobaria, udal-katalogoak babes-tutako eraikuntzetan etxebizitza babestuak egiteko eraikuntza, instalazio edo birgaitze-lanetarako.

e) % 30erainoko hobaria, lehentasunez zaharberri beharrek eremuetan eta esku-hartze publiko planen arloetan txertatutako eraikuntzetan etxebizitza babestuak egiteko eraikuntza, instalazio edo birgaitze-lanetarako.

2. Aurreko apartatuan aipatutako hoberietako bat baino gehiago eskatzen diren kasuetan, hoberirik handiena baino ez zaio aplikatuko onuradun den subjektu pasiboari.

3. Hoberiak bakoitzaren gainerako alderdi substantiboak eta formalak ordenantza fiskalez arautuko dira. Hoberiak horietako bakoitzari atzeraeraginezko izaera ezartzen ahalko zaio; atzeraeraginezko hori ezin izanen da urtebetetik gorakoa izan, foru lege hau indarrean sartzen denetik.

**Azken xedapena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**11-25/MOC-00170. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-  
tzen baita osasun mentaleko zerbitzuak O-NOZetik entitate pribatuetara  
ateratzean kalitatezko zerbitzua berma dezan, lanpostuak mantentzen dituzan  
eta lan baldintza duinak ziurta dituzan**

*DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bazarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita osasun mentaleko zerbitzuak O-NOZetik entitate pribatuetara ateratzean kalitatezko zerbitzua berma dezan, lanpostuak mantentzen dituzan eta lan baldintza duinak ziurta dituzan.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

**3.** Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**MOZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkeztzen du, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Laster beteko da urtebete Hermanas Hospitalarias enpresak, Nafarroako Gobernuaren baime-narekin, Elizondoko Benito Menni zentroko hiru eraikinetako bat ixtea erabaki zuenetik.

Bada, itxiera horrek eragin negatiboa izan du zentroko erabiltzaileek jasotzen duten zerbitzuaren

kalitatean eta langileen lan-baldintzetan. Emakumezko langileek kaleratzeak pairatu dituzte, haien baldintzek okerrera egin dute, eta lan-kargak, berriz, gora egin du.

Esperientziak agerian utzi du zainketekin lotutako zerbitzuak azpikontratatzeko, batez ere osasun-alarrean, arretaren kalitatea murriztea dakarrela. Esternalizazioaren logika –zeinak mozkin ekonomikoak lortzea baitu xede– bateraezina da pertsonen beharretan ardaztutako zainketak bermatzearekin. Gainera, beste behin ere genero-arrakala eta lan-desberdintasun nabarmenak eragiten dituen prekaritatea ezartzen dio langileriarri, eta emakumezkoak dira langile gehienak.

Horregatik guztiagatik, ezinbestekoa da osasuneko arreta, osasun mentalaren arloko arreta, merkantilizazio-dinamiketarik aldentzea, eta protagonismoa itzultzea asistentziaren kalitatea, landuintasuna eta interes orokorraren babesa leheneztiko dituen eredu publiko bati.

Testuinguru horretan, nahitaezkoa gertatzen da Nafarroako Gobernua zuzenean interpelatzea; izan ere, azken bateko erantzukizuna beti administrazio publikoarena da, kalitatezko zerbitzua ematen dela ziurtatzeari dagokionez, baita administrazioak azpikontratazio- edo esternalizazio-formulak aukeratzen dituzenean ere.

Hori dela-eta, honako erabaki-proposamen hauek aurkeztu ditugu:

Lehenengoa: Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Osasun Sistema Publikoak zuzenean kudea dituzan Osasun Sistema Publikoaren (OSN) zerbitzu-zorro komuneko prestazioak, osasun mentaleko zerbitzuei dagozkienak, gainerako osasun-zerbitzu funtsezkoak bezalaxe, aurrerapausoak emanez publikotasunerantz.

Bigarrena: Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berma dezan, zerbitzua publiko egiten ez den bitartean, azpikontratutako zerbitzuaren antolaketan kontuan hartuak direla osasun mentaleko pazienteen berezitasunak, haien beharrizan errealetara egokituz giza baliabideak eta baliabide materialak.

Hirugarrena: Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du osasun mentaleko arreta ematera bideratutako baliabide publikoak erabil daitezkeen kalitateko zerbitzu bat bermatzeko, lanpostuei eusteko eta lan-baldintza duinak bermatzeko, zerbitzua publiko egiten ez den bitartean.

Iruñean, 2025eko abenduaren 12an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

## **11-25/MOC-00171. Mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita inklusioa, ekitatea, gardentasuna eta tratu-berdintasuna berma ditzan Nafarroako hezkuntza-sistemaren eta aniztasuna artatzeko politiken printzipio lagaezin gisa**

*MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita inklusioa, ekitatea, gardentasuna eta tratu-berdintasuna berma ditzan Nafarroako hezkuntza-sistemaren eta aniztasuna artatzeko politiken printzipio lagaezin gisa.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

**3.** Ezartzea mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentariari atxikitako parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatua eta bozkatua izan dadin:

Zioen azalpena:

Nafarroak hezkuntza-transferentziak jaso eta hiru urtera, martxoaren 1eko 76/1993 Foru Dekretuak Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroa sortu

zuen, Nafarroako Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren ardurapekoa.

Foru dekretu hark bultzatu egiten zuen 1990eko urriaren 3ko Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko Lege Organikoak (LOGSE) sustatutako integrazioa, eta, bertan, normalizazioa osagarritasun- eta subsidiarioritasun-printzipioetan mamitu zen.

Ildo horretan, sustatu nahi zen ezen baliabide orokorrak izan zitezela ikastetxeetan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen beharrei erantzun berariazkoa emanen zietenak, horretarako zerbitzu espezializatuen laguntza gaitasun-emaitza eta ez-ordezlea edukita.

Hezkuntzari buruzko 2006ko Lege Organikoak eta, orokortasunez, Nazio Batuen Erakundeak 2006an onetsitako eta Espainiako Estatuak 2008an berretsitako "Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioak", hainbat kontzeptu ekarri zituzten, hala nola inklusio-printzipioa, hezkuntzaren kalitatea, ekitatea, diskriminaziorik eza eta malgutasun hura zeinaren bidez hezkuntza egokituko baitzen ikasleen gaitasun, interes, aurreikuspen eta premien aniztasunera.

Printzipio horiek gidatu dute CREENA-Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroak orduz geroztik izandako bilakaera, eta erreferentzia teknikoko erakunde bihurtu dute aniztasunaren esparruan, halakoa zeinak ikastetxeei benetan laguntzeko moduko kalitatezko aholkularitza eta erantzunak eman behar baititu, ikastetxeek hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak dituzten ikasleei arreta egokia eman diezaieten.

Bestalde, 1/2023 Foru Dekretuak, 14. artikuluan, CREENAren zuzendaritzaren eginkizunei buruzkoan, ezartzen du zuzendariari dagokiola Hezkuntza Departamentuarekin koordinatzea beste erakunde edo organismo batzuekiko hitzarmenak egiteko proposamena eta hitzarmen horien prestaketa; besteak beste, gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko entitateekikoak. Beraz, eta zalantzarik gabe, CREENAren jarduera-eremuari eragiten dion edozein hitzarmen koordinatua izan behar da haren zuzendaritzatik, Departamentuarekin elkarrizketan arituz.

Azken egunetan, CREENAren eta Hezkuntza Departamentuaren arteko desadostasunak agerian uzten dituzten albisteak ezagutu ditugu, Departamentu horrek Alegría Fundazioarekin sinatutako hitzarmen bat dela-eta. Desadostasun horien ondorioz, CREENAren zuzendaritzataldeak dimisioa eman du.

Gaur egun, ikastetxeetako akonpainamendu- eta laguntza-premiak murriztu ez eta, oso aitzitik, nabarmen areagotzen ari dira. Horregatik, are garrantzi handiagokoa suertatzen da zentro horrek bere eginkizunak eraginkortasunez betetzeko modua izan dezan bermatzeko behar diren baldintzak sortzea, bai zuzenean esku hartuz, bai irakasleekin, familiekin eta hezkuntza-komunitatearen osotasunarekin lankidetzan arituz.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du inklusioa, ekitatea, gardentasuna eta tratu-berdintasuna printzipio lagaezin gisa berma ditzan; Nafarroako hezkuntza-sistemako printzipio gisa orokorrean eta, zehazkiago, aniztasuna artatzeko politiketako printzipio gisa.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua premiatzen du hezkuntza-baliabideen preskripzioari eta hornidurari euts diezaien zentro eta zerbitzu publikoetan soilik.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua premiatzen du prozesua birbidera dezan, hori oinarrituz urtarrilaren 18ko 1/2023 Foru Dekretuak, Hezkuntza Departamentuaren mendeko Nafarroako Hezkuntza Ekitalterako Baliabide Zentroaren (NHEBZ) sorrera, antolamendua eta funtzionamendua arautzen dituen horrek, ezarritako zertzeladetan.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du NHEBZen zuzendaritzarekin landu dezan aniztasunaren arretari eragiten dion edozein hitzarmen edo proposamen, eta 1/2023 Foru Dekretuak araututako lankidetzaguneetan parte hartzen duten entitateen ordezkartzarekin kontaktuz.

Iruñean, 2025eko abenduaren 12an

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

## **11-26/MOC-00001. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroaren konpromiso europazalea berretsi eta europar proiektua bakearen, eskubideen, berdintasunaren eta kohesioaren gune gisa aldeztu baita, Espainia Europar Batasunean sartzearen 40. urteurrena dela-eta**

### *NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroaren konpromiso europazalea berretsi eta europar proiektua bakearen, eskubideen, berdintasunaren eta kohesioaren gune gisa aldeztu baita, Espainia Europar Batasunean sartzearen 40. urteurrena dela-eta.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Eskatzen dugu Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Batzordean egin dadila mozio honen betetze-egoerari buruzko jarraipena.

### Zioen azalpena

2026ko urtarrilaren 1ean, Espainia Europar Batasunean sartu izanaren 40. urteurrena ospatzen da. Mugarri horrek gure demokrazia sendotu, eskubideak eta askatasunak hedatu, ekonomia modernizatu eta gizarte- eta lurralde-kohesioa indartu zituen.

Lau hamarkada geroago, Europako proiektuak nazioarteko testuinguru bereziki kritiko bati heltzen dio: kontinentea pairatzen ari den gerra, multilateralismoaren gaineko presioa, Zuzenbide Estatu munduko zenbait tokitan narriatzea, eta Europar Batasuna barrutik ahuldu nahi duten indar politikoaren gorakada. Azken urteotan, gainera, Europako eskuinaren zati bat gero eta lerrokatuagoa dago ultraeskuinaren postulatu eta aliantzekin, eta erregresio demokratiko eta sozialeko diskurtsoak normalizatzen ditu.

Esparru horretan, bereziki kezagarria da Donald Trump presidente estatubatuarren agenda politikoarekiko jarraikeria akritikoa, eta, bereziki, haren Segurtasun Nazionalako Estrategiak Europaren segurtasunean eta Europar Batasunaren arau-autonomian izan dezakeen eragina. Europako sozialismo demokratikoaren hainbat ahotsek ohartarazi dute estrategia hori EBrekiko etsaitasun esplizitua dela, eta erantzuna ezin dela isiltasuna izan, baizik eta Europaren autonomia estrategikoa indartzea –defentsan, energian, merkataritzan eta teknologian–, gure legegintza-ahalmena babesteko eta gure arauak eta balioak defendatzeko.

Segurtasunik ezaren eta desparekotasunaren aurrean, Europaren erantzunik onena ez da erreze-ta erreakzionarioak koptatzea, baizik eta Europako ereduak sakontzea: kohesio handiagoa, eskubide gehiago, justiziazko trantsizio ekologiko gehiago, demokrazia gehiago eta gizarte-babes handiagoa.

Bide horretan, Europako erakundeek eta estatu kideek adierazi dute eragingarriagoa den Europa bat behar dela, asmo handiko aurrekontuak izanen dituena, eta Europako ondasun publikoak finantzatzeko, gizarte- eta lurralde-kohesioa indartzeko eta trantsizio berde eta digitalari eusteko modukoa izanen dena, zutabe soziala eta etxebizitza-politika ere barne harturik. Era berean, Europako Kontseiluak

denbora darama nabarmenarazten nolako garrantzia duen erresilientzia demokratikoa indartzeak, desinformazioari aurre egiteak eta aniztasuna eta Europaren araugintza-autonomia babesteak.

Nafarroak, komunitate guztiz europazalea den aldetik, bultzada horretan lagundu dezake eta lagundu behar du, bere eskumen eta politika publikoetatik: justiziazko trantsizio energetikoa bizkortuz, kohesioa eta gizarte-politikak indartuz, gizarte zibila babestuz, giza eskubideak errespetatzen dituen migrazio-politika bat defendatuz eta etxebizitza lehentasun gisa jarritz.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabakiproposamen hau aurkezten du:

1. Berrestea, Espainia Europar Batasunean sartzearen 40. urteurrena dela-eta, Nafarroak duen konpromiso europazalea, Europako proiektua bake, eskubide, berdintasun eta kohesiorako espazio gisa defendatuz.

2. Ezezkoa ematea Donald Trumpen agenda-arekiko eta Europaren segurtasuna arriskuan jartzeko edozein estrategiarekiko jarraikeriari, eta dei egitea Europaren autonomia estrategikoa eta segurtasun, energia, industria eta teknologia-aren alorretako subiranotasuna indartu daitezen.

3. Europaren erantzun integral bat abiarazteko dei egitea, zeina oinarrituta egonen baita justiziazko trantsizio berde eta energetikoan, gizarte-politiken indartzean, etxebizitzarako eskubidean eta giza eskubideak errespetatzen dituen migrazio-politika batean, eta ezezkoa ematea araugintzaren atzerakadei eta Gobernu Kanpoko Erakundeak jomugan ipintzeari edo pertsegituak izateari.

4. Demokrazia eta europazaletasuna defendatzea autogobernuaren eta bizikidetzaren zutabe gisa, eta ezezkoa ematea indar erreakzionario eta ultraeskuindarren normalizazioari eta haiek eskubideei, askatasunei, berdintasunari eta zuzenbide-estatuari dagokienez darabiltzaten politika atzerakoei.

5. Nafarroako Gobernuak premiatzea bere politika publikoak eta ekintza instituzionala aipatu agendarekin bat etorrarazten jarrai dezan Espainiako Gobernuarekiko eta Europako erakundeekiko akordioak eta lankidetzak sustatuz, halatan aurrerapausoak emate aldera Europaren subiranotasunean, gizarte-kohesioan, trantsizio ekologikoan eta etxebizitzaren eskuragarritasunean.

6. Erabaki hau Espainiako Gobernuari eta Europako erakunde eskudunei helaraztea, jasotako neurriak ezagutu eta bultzatzeko.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 7an

Eleduna: Ainhoa Unzu Gárate

## 11-26/MOC-00002. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita neurriak har ditzan lan-merkatuan adinkeria detektatzeko eta desagerrarazteko

### NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita neurriak har ditzan lan-merkatuan adinkeria detektatzeko eta desagerrarazteko.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko, zeinaren bidez premiatzen baita neurriak har daitezten lan-merkatuan adinkeria detektatu eta desagerrarazteko:

Eskatzen dugu Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordean egin dadila mozio honen betetzearen jarraipena.

Zioen azalpena

Adinkeria –adinean oinarritutako diskriminazioa– errealitate iraunkorra da gizartearen eremu askotan, baita lan-merkatuan ere, eta biztanleriaren hainbat sektoreri eragiten dio, hala nola gazteei eta adinekoei.

OMEk adinkeriarri buruz egindako mundu-mailako txostenaren arabera, adinkeriak areagotu egiten du indarkeria- eta abusu-arriskua, eta lotura dauka osasun fisiko eta mental okerragoarekin eta bizi-itxaropen laburragoarekin.

Gurean, modu esplizituan aitortu da adina diskriminazio-modu gisa, Tratu-berdintasunaren eta diskriminazio ezaren aldeko uztailaren 12ko 15/2022 Lege integralaren 2. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Pertsonak, urteak bete ahala, enplegu-bilaketan maiz asko oztopo eta aurreiritziei aurre egin behar izaten diete beren adinagatik. Diskriminazio hori, bidegabea ez ezik, kaltegarria ere bada gurea bezalako gizarte aurreratu baten hazkunde ekonomikoarentzat eta aukera-berdintasunarentzat.

Aurrerapen handiak egin dira Nafarroako eta Espainiako gobernu aurrerakoien eskutik, eskuinteko gobernuek aplikatutako politika neoliberalen ondorio kaltegarriak iraultzeko, zeinek lan-merkatuaren desarauketara eta langile-klasearen lan-baldintzen prekarizaziora eraman baikintuzten. Gaur egun, Nafarroak Estatuko langabezia-tasarik baxuenetakoak ditu, eta errekorra du gizarte-segurantzako afiliazioetan.

Hori guztia gorabehera, oraindik ere badira arrakalak. Guztion ardura da horiek ezabatzea lan-merkatuan berdintasuna eta justizia soziala sustatuz.

Horregatik guztiagatik, Alderdi Sozialistaren talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lan-merkatuko adinkeriarri buruzko ikerketa bat egin dezan, bai eta sexuaren arabera bereizitako datuen bilketa ere, haren kausak eta ondorioak ulertzeko eta, horrela, adinaren-gatiko diskriminazioa eraginkortasunez jorratuko duten politiken eta programen ezarpena balortzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du neurri zehatz eta eraginkorrak bultzatzen dituzten lan-merkatuan adinkeriarri aurre egiteko eta langile guztien aukera-berdintasuna sustatzeko maila hierarkiko eta ekoizpen-sektore guztietan, adina edozein dela ere.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 7an

Eleduna: Ainhoa Unzu Gárate

## **11-26/MOC-00003. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Nafarroako gizarte-deskonexioko egoerari buruzko diagnosi bat presta dezan eta bakardadetik gizarte-konexiora pasatzeko estrategia bat zehaztu dezan**

### *NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Nafarroako gizarte-deskonexioko egoerari buruzko diagnosi bat presta dezan eta bakardadetik gizarte-konexiora pasatzeko estrategia bat zehaztu dezan.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

**3.** Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, zeinaren bitartez premia-tzen baita Nafarroako gizarte-deskonexioko egoerari buruzko diagnosi bat presta dadin eta bakardadetik gizarte-konexiora pasatzeko estrategia bat zehatz dadin:

Eskatzen dugu Lehendakaritza eta Berdintasuneko Batzordean egin dadila mozio hau betetzeari buruzko jarraipena.

Zioen azalpena

Digitaliki hiperkonektatutako gizarte batean bizi gara, non, paradoxikoki, gero eta pertsona gehiagok deskonexio soziala pairatzen baitute.

Deskonexio soziala gertatzen da pertsona batek nahikoa kontaktu sozialik ez duenean, babestuta sentitzen ez denean dituen harremanetan, edo haren harremanak tentsiozkoak edo negatiboak direnean.

Hainbat modutan ager daiteke, eta bakardadea eta isolamendu soziala dira modurik garrantzitsuenetako bi.

Deskonexio soziala edozein pertsonak bere bizi-zako uneren batean jasan badezake ere, hainbat azterlanen arabera kolektibo jakin batzuek pairatzen dute eragin handiagoa: gazteek, adinekoek, desgaitasuna duten pertsonak, errefuxiatuek eta migratzaileek, LGTB pertsonak eta guxtiengo etnikoek.

Bakarrik, isolatuta, sozialki deskonektatuta sentitzen diren gero eta pertsona gehiago egotea arazo handia da, eta ondorio larriak ditu osasunean, ikasketetan eta lanean, bai problema pairatzen duten pertsonentzat, bai eta, oro har, gizartearentzat ere. Gizarte-lotura indartsuak dituen gizarteak erresilienteagoa, solidarioagoa, seguruagoa eta oparotasun handiagokoa da.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa gertatzen da politika publikoak garatzea gizarte-ekimeneko entitateekin lankidetzan, herritar guztien gizarte-konexioa babesteko eta nafar gizarte sozialki kohesionarioagoa, konektatuago eta solidarioagoa eraikitzeko.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki-proposamen hauek aurkezten ditu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua honako hauetara premia-tzen du:

**1.** Nafarroako deskonexio sozialaren egoerari buruzko azterlan bat egitera, arazoak gure erkidegoan duen luze-zabala eta kausa nagusiak ezagutzeko.

**2.** Lortutako emaitzetan oinarrituta, Nafarroan gizarte-lotura sustatzeko estrategia bat lantzerako, bermatuz ezen parte hartuko dutela kolektibo kalte-tuenean, Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioak eta gizarte-arloko, osasuneko eta hezkuntzako profesionalak.

**3.** Elkarlaguntza-taldeak eta ekimen komunitarioak sustatzea nahi ez den bakardadea prebenitzeko, gizarte osoa inplikaturik lotura solidarioak eta komunitarioak sortzeko, gizarte erresilienteagoa sustatzekoak.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 7an

Eleduna: Ainhoa Unzu Gárate

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-25/PES-00447. Galdera, Nafarroako Ubidearen 1. faseko eremu ureztagarria handitzeko emakida-kontratuko Plan Ekonomiko-Finantzarioaren berrerekatze-espedienteari Kontu-hartzailletza Nagusiak jarritako eragozpen-ohar etengarriari buruzkoa***MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Nafarroako Ubidearen 1. faseko eremu ureztagarria handitzeko emakida-kontratuko Plan Ekonomiko-Finantzarioaren berrerekatze-espedienteari Kontu-hartzailletza Nagusiak jarritako eragozpen-ohar etengarriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Egaren adarrari dagokionez (Ega-1 izan ezik), X. eranskina eguneratzearen ondorioz Nafarroako Ubidearen 1. faseko eremu ureztagarria handitzeko emakida-kontratuko Plan Ekonomiko-Finantzarioaren berrerekatze-espedienteari Kontu-hartzailletza Nagusiak jarritako eragozpen-ohar etengarriari buruz.

1. Zein datatan aitortu zuen formalki Nafarroako Gobernuak X. eranskineko egutegiaren atzerape-

nak Administrazioari egoztekoak zirela, eta zein organo edo arduradun administratibok eragin zituen atzerapen horiek?

2. Zein da administrazioari egotz dakizkiokeen atzerapenek kontratuaren plan ekonomiko-finantzarioan izan duten guztizko diru-inpaktua, honela xehakaturik: kanonaren aldakuntza, Barne Itzulketa Tasak kontratuaren % 11,328arekiko izandako desbideratzea eta 2020tik aplikatutako tarifetako eragin metatua?

3. Kontu-hartzailletza Nagusira bidalitako 9. berrerekatze-espedientean zergatik ez zegoen barne-txosten juridikorik, INTIAren 2022ko berrerekatze-proposamenik eta 2023/07/27ko PwC-ren txostenik, eta nork agindu zuen halako gabezia?

4. Zein egunetan egin zen 9. berrerekatzea babesten duen barne-txosten juridikoa? Txosten hori Kontu-hartzailletza Nagusiaren eragozpen-ohar etengarriaren ondoren jaulki al zen? Baiezkoan, nola justifikatzen da horren baliozkotasuna, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen 55. artikulua argitan?

5. Zergatik ez zitzaion Jardunbide Egokien eta Ustelkeriaren aurkako Bulegoari bidali 9. berrerekatzea, 14/2023 Foru Dekretuaren 4.7 artikulua xedatzen duena gorabehera, eta zer organok erabaki zuen hori ez bidaltzea?

6. INTIAk ba al zuen eskumenik Ega-4tik Ega-9ra bitarteko sei luzapenak baimentzeko, 12/2005 Foru Legearen 3.1.b artikulua arabera, eta izan al zen luzapen horiek aldeztu zituen aurretiazko txosten juridikorik?

7. Baldin INTIAk emandako luzapenek eskumenik ez badute edo deusezak badira, nola eraginen lioke horrek X. eranskineko egutegiari, 9.

berrerekatze ekonomikoari eta Administrazioaren balizko ondare-erantzukizunari?

8. Berrets al dezake Gobernuak "INTIAren txostena – Ega-6 eta Ega-7 atzerapenak (2024ko apirila)" txostenak ez duela data eta sinadurarik, eta Administrazioari egotz dakizkiokeen atzerapenak aitortzeko ahalmena duen administrazio-organo eskudun batek baliozkotu duela?

9. Nola justifikatzen du Gobernuak 9. berrerekatzea izapidetu izana emakidadunak formalki adierazi zuenean ez zuela ezagutzen INTIAren 2022ko maiatzaren 26ko berrerekatze-proposamena, eta ez zegoela proposamen horren esanbidezko ez eta isilbidezko onarpenik?

10. Gobernuaren ustez, eta Ekonomia eta Aurrekontu Kudeaketako Zerbitzuak adierazitakoaren haritik, zeinak esan baitu onartutako tarifagehikuntzek "ez dutela finantza-ereduaren errealitatea islatzen", gertatu ahal izan al da behar ez bezalako aurrerapenak egin izana emakidadunari, edo kalterik egin izana Foru Ogasunari?

12. Zergatik bilatzen du 9. berrerekatzeak kontratura berriro % 11,328ko Barne Itzulketa Tasa eramatea, eta zer desbideratze zehatzek eragin zuten hura aldatzea? Adieraz bedi zer parte den Administrazioari egotz dakizkiokeen atzerapenen ondoriozkoa eta zer txostenek frogatzen duten doikuntzaren proportzionaltasuna.

13. Eman al dezake Gobernuak Administrazioari egotz dakizkiokeen atzerapenetan 2015 eta 2024 bitartean eragina izan zuten administrazio-jarduketara guztien kronologia osoa, datatua eta

dokumentatua, barne harturik luzapenak, egutegi-aldaketak, ebazpenak, txostenak eta Departamentuaren administrazio-egintzak?

14. Nork hartu zuen 9. berrerekatzea izapidetzen jarraitzearen erabaki politiko eta administratiboa, are Kontu-hartzaitza Nagusiak esanbidez ohartarazi zuen arren ezen txosten juridikorik ez zegoela, luzapenetan INTIAk beharbada ez zuela eskumenik eta funtsezko dokumentaziorik ez zegoela? Adierazi ea erabaki hori Lurralde Kohesioko kontseilariari, Herri Lanetako zuzendari nagusiari ala Azpiegitura Berrien Zerbitzuko zuzendariari dagokion.

15. Nork agindu zuen Kontu-hartzaitzari bidalitako dokumentu-espeditetan ez jasotzea INTIAren 2022ko berrerekatze-proposamena eta 2023/07/27ko PwC txostena, are horiek 9. berrerekatzea justifikatzeko funtsezko dokumentuak izan arren? Adierazi ea agindu hori kontseilariak, zuzendari nagusiak edo Zerbitzuko zuzendariak eman zuen.

16. Egon al zen barne-ohartarazpenik, zerbitzu-oharrik, mezu elektronikorik, ahozko jarraibiderik edo komunikaziorik kontseilariaren, zuzendari nagusiaren eta Zerbitzuko zuzendariaren artean, Kontu-hartzaitza Nagusiaren ohartarazpenei jaramon egin gabe 9. berrerekatzea onartzearen arriskuei buruz? Baiezkoan, komunikazio horien kopiaak aurkez bitza.

Iruñean, 2025eko abenduaren 12an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

## **11-25/PES-00448. Galdera, onetsitako luzamendutik kanpo geratzen diren biometanizazio-plantetan ingurumen-babeserako neurri osagarriak ezartzeari buruzkoa**

*CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, onetsitako luzamendutik kanpo geratzen diren biometanizazio-plantetan ingurumen-babeserako neurri osagarriak ezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Duela gutxi, Ingurumeneko zuzendari nagusiaren abenduaren 4ko 1400E/2025 Ebazpenaren edukia berri izan dugu. Ebazpen horren bidez, kaute-lazko etetea deklaritzen da, Ingurumenen eragina duten jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legearen zortzigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoa –azaroaren 7ko 14/2025 Foru Legearen bidez sartu zen zortzigarren xedapen gehigarri hori–.

Ebazpen horrek berretsi egiten du koalizio honek aurretik adierazitakoa: Ingurumenen eragina duten jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legea aldatzea xede duen foru lege-proposamenari Unión del Pueblo Navarrok eta Nafarroako Alderdi Sozialistak aurkeztutako zuzenketak, onetsia izan zenak, onetsitako luzamendutik kanpo uzten ditu Sesmako, NILSA – Tuterako eta Arronizko biometanizazio-instalazioak.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak aurreikusten al du ingurumena babesteko neurri osagarririk garatzea edo ezartzea onartutako luzamendutik kanpo geratzen diren biometanizazio-instalazioek sortzen ahal dituzten ingurumen-eraginak prebenitze eta arintze aldera?

Iruñean, 2025eko abenduaren 15ean

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

## **11-25/PES-00449. Galdera, Pérez Capapay jaunak Nafarroako Gobernuko kontu-hartzaile nagusi denetik altxatutako eragozpen-ohar etengarriei buruzkoa**

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako galdera, Pérez Capapay jaunak Nafarroako Gobernuko kontu-hartzaile nagusi denetik altxatutako eragozpen-ohar etengarriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoa-

ren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak idatziz erantzun diezaion:

Zenbat eragozpen-ohar etengarri altxatu ditu Pérez Capapay jaunak Nafarroako Gobernuko kontu-hartzaile nagusia denetik? Zer espediente dira horiek?

Kontu-hartzailetzaren eragozpen-ohar etengarrien zenbat txosten egon dira legealdi honen hasieratik gaur arte?

Zenbat altxatu ditu kontu-hartzailetza nagusiak?

Altxatu ez direnetatik, zenbatetan hartu du bere gain gobernuak kontu-hartzailetzaren irizpidea?

Espedienteen identifikazioa galdera bakoitzean.

Erantzuna ematen den egunean dagoen informazio guztia eskatzen da, Gobernu Irekiaren webgunean argitaratuta egon ala ez.

Iruñean, 2025eko abenduaren 16an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

## 11-25/PES-00450. Galdera, Familiako medikuen eta pediatren lekualdatzeei buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Familiako medikuen eta pediatren lekualdatzeei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zergatik ez dira lekualdatzen O-NOZen egindako azken lekualdatze-lehiaketan parte hartu duten familia-medikuak eta pediatrak, eta noiz espero da profesional horiek lekuz aldatu ahal izatea?

Iruñean, 2025eko abenduaren 17an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

## 11-25/PES-00451. Galdera, itxaron-zerrenden datuak atzera begira doitzea eragozten duten arrazoiei buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, itxaron-zerrenden datuak atzera begira doitzea eragozten duten arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Osasun Departamentuak 11-25/PES-00426 galderari emandako erantzunari dagokionez, zehazki, zerk eragozten du itxaron-zerrenda berriz kalkulatzea 2025eko ekainean ezabatu ziren 5 espezialitateak ezabatuta?

Iruñean, 2025eko abenduaren 17an.

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

## 11-25/PES-00452. Galdera, suizidioaren prebentziorako programa Iruñeko espetxean aplikatzeari buruzkoa

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, suizidioaren prebentziorako programa Iruñeko espetxean aplikatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan.

EH Bilduk azken asteetan Iruñeko espetxean gertatu diren hainbat suizidio-saiakeraren (8) eta norbere buruari kalte egiteko gertaeren berri izan du. Gertakari horiek bereziki jatorri magrebtarra duten preso gazteen artean izan dira.

Espetxeetako suizidioa estres psikosozialaren ikuspegitik jorra daiteke; izan ere, espetxeratzeak egokitzapen psikosozialeko prozesu bat dakar berekin, eta prozesu horretan esku hartzen dute eta elkarri eragiten diote ingurune estres-eragileek (hezetasuna, hotza, beroa, zarata), higie- eta osasun-baldintza eskasek, aisialdirako espaziorik ezak, jende-pilaketak, intimitaterik ezak, gizarte-laguntzarik gabeko arkitektura- eta antolamendu-

egitura batek, migratzaileen komunikazio-zailtasunak... Horrek guztiak pertsonaren osasun-egoera psikologikoari eta fisikoari eraginen lioke.

Administrazioak "giltzaperatuen bizitza, osotasuna eta osasuna zaindu behar ditu" (Espetxeei buruzko Lege Organiko Orokorren 3.4 artikulua). Horregatik, Suizidioak Prebenitzeko Programa delako bat badago 2014tik. Espetxe Idazkaritza Nagusiaren 5/2014 Instrukzioan dago araututa.

Espetxeek suizidioaren prebentziorako politika arrazoizkoa eta integrala izan behar dute, eta programa horiek ezartzeko erantzukizuna espetxe-agintariek izan behar dute; ez funtzionarioek, ez eta espetxe-osasungintzako langileek ere. Programa horiek beren zaintzapean dauden preso suizidioa prebenitzeko prestakuntza duten langileak izan beharko dituzte, eta adierazle sinpleak izan ahalko dituzte, behaketaren eta komunikazio egokienaren osagarri modura erabili ahal izatekoak alerta- eta arrisku-seinaleen detekzioa hobetzeko.

Horri buruz, parlamentari honek idatzizko galdera hauek egiten ditu:

– Iruñeko espetxean Suizidioak Prebenitzeko Programa modu integralean aplikatzen ari al da? Zenbat aldiz aktibatu da? Egokitzapenik egin al da jatorriz migratzaile diren presoekin esku hartzeko?

– Zenbat suizidio-ahalegin eta zenbat presorenak egon dira 2025ean, datuen arabera?

– Zer jarduketa egin dira 2025ean detektatutako suizidio-ahaleginetako bakoitzean?

– Prebentzio-neurri gehiago hartzen ari al dira, langileei prestakuntza ematen, arrisku-adierazleak egiten, arrisku posibleen komunikazioa hobetzen, kolektibo jakin batzuentzat programa eta lantegi espezifikokoak egiten...?

Iruñean, 2025eko abenduaren 18an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

## 11-25/PES-00453. Galdera, EIBZ Ezpeleta Jauregira eramateko arrazoiei buruzkoa

### ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, EIBZ Ezpeleta Jauregira eramateko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Hezkuntza Departamentuari eskatzen dio honako idatzizko galdera hauei erantzun diezaien.

Zubiarte Euskaltea Hezkuntza Departamentuaren menpeko euskaltea publikoa da. 2002. urtean sortu zen, Miluze Euskaltea eta Irakasleen

tzako Birziklatze Ikastegia batu ondok. Euskaltea Uharte herrian dago kokatua, Zubiarte kaleko 13. zenbakian. Eraikin berean kokatua dago Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroa (EIBZ), hori ere Hezkuntza Departamentuaren menpeko.

Hezkuntza Departamentuak adierazi du EIBZ zentroa Ezpeleta Jauregira eramateko asmoa duela.

– Zein dira EIBZ Ezpeletara eramateko arrazoiak?

– Noiz egingen da?

– Erabaki hori hartzeko kontuan hartu al da EIBZko zuzendaritzaren eta langileen iritzia?

– Kontuan izanda Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroa eta Zubiarte euskaltea hasiera-hasieratik elkarrekin kokatu izan direla eta hainbat espazio partekatzen dituztela, Departamentuak ez al du baloratu bi zentroak elkarrekin mantentzea, orain eta etorkizunean?

– Ezpeleta Jauregian ba al daude EIBZk, baliabideen zentroa baita, behar dituen espazioak eta azpiegiturak?

Iruñean, 2025eko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

## 11-25/PES-00454. Galdera, Nafarroako arte eszenikoetako ikasketei buruzkoa

### ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Nafarroako arte eszenikoetako ikasketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun ditzan:

Nafarroak arte eszenikoekiko konpromiso argia erakutsi du, gazteen artean gero eta interes handiagoa duten hiru batxilergo espezifiko bultzatuz. Interes horrek aukera ematen du gaur egun Erkidegoak prestakuntza-ibilbide horretan lagun dezan, gazte horiei alde egin behar izan gabe beren talentua garatzeko aukera emanen dieten handik aurrerako aurrerapausoekin.

#### ARTE ESZENIKOETAKO PRESTAKUNTZA NAFARROAN

Ikasle batzuek Nafarroan jarraitu nahi dute Arte Eszenikoetako beren prestakuntza, eta badago tartea jarraitutasuna emanen lieketen hezkuntza-ereduak aztertzeko.

1. Gobernuaren ustez onuragarria izan al liteke sektorearekin batera errepide-mapa bat esploratzea, Nafarroan arte eszenikoetako goi-mailako prestakuntzak zer-nolako bilakaera izan lezakeen zehaztuko lukeena?

2. Gobernuarentzat interesgarria izan al litzateke beren prestakuntzarekin Foru Komunitatean jarraitu nahi duten talentu gazteak bertan egonartzeko eta haiei lagun egiteko formulak aztertzea?

3. Prestakuntzaren jarraitutasun hori bultzatzeak izanen lukeen eragin kultural, sozial eta ekonomikoaren analisia egiteaz hausnar al liteke?

#### IKUS-ENTZUNEZKO EKOSISTEMA: PRESTAKUNTZA TEKNIKOA ETA SORKUNTZA KONEKTATZEA

Nafarroak apustu esanguratsua egin du karakterizazio, jantzigintza, argiztapen, sonorizazio eta ekoizpeneko gradu tekniko berriak ezartzearekin. Lan-ildo horrek oso oinarri profesional baliotsua eragiten du, eta Erkidegoa leku pribilegiatuan kokatzen du. Aldi berean, apustu tekniko hori interpreteen eta sortzaileen prestakuntzarekin joritzeko aukera sortzen da. Horrek modua emanen luke zirkulua iteko eta ikus-entzunezko ekosistema guztiz autonomia indartzeko.

1. Interesgarria izan al liteke Gobernuarentzat gradu tekniko berrien eta Nafarroaren barreneko sortzaile- eta interprete-prestakuntzaren arteko harremana nola antolatuz aztertzea?

2. Bi prestakuntza-profil horien integrazioak Nafarroako ikus-entzunezkoen sektorearen ahalmen sortzaile eta produktiboa aberastu lezakeela baloratzen al da?

#### NAEE (NAFARROAKO ARTE ESZENIKOEN ESKOLA), PRESTAKUNTZA- ETA SORMEN-BALIABIDE DAGOENEN AKTIBOA NAFARROAN

NAEEK 4 urteko prestakuntza eskaintzen du, goi-mailako ikasketen (ESAD) parekoa. Horretarako, eskola ofizial eta pribatuen programak aintzat hartu, eta ingurune profesionalarekin hitz egiten du, lan-aukerak ekarriko dituzten ikasketak tankertzeko. Era berean, komunitateko beste espazio tekniko eta sortzaile batzuekin erlazionatzen da.

1. Gustatuko al litzaioke Gobernuari NAEE egiten ari den hezkuntza-, arte- eta komunitate-lana eta Nafarroako kultura-estrategian izan dezakeen egokitzapena xehetasun handiagoz ezagutzea?

2. NAEE kultur edo hezkuntza-plangintzako etorkizuneko prozesuetan solaskide izan daitekeen agentetzat har liteke?

#### LANKIDETZAN ARITZEA ZENTRO OFIZIALEKIN ETA JARRAIPEN PRAKTIKOA

NAEEK urtero hartzen ditu jantzigintzako, argiztapeneko, karakterizazioko eta beste adar tekniko batzuetako ziklo ofizialetako praktikak egiten ari diren ikasleak. Lankidetzak horiek modu naturalean gertatzen dira, eta erakusten dute dagoeneko badagoela elkarlaneko hezkuntza-ekosistema bat ikastetxe ofizialen eta prestakuntza-proiektuen artean, NAEE kasu. Harreman horrek aplikazio praktikorako benetako leku bat sortzen du ikasleentzat, eskolan beren gaitasunak garatzeko gune bat aurkitzen baitute.

1. Interesgarria izan al litzateke Gobernuarentzat lankidetzak horiei egonkortasuna emanen lieketen formulak baloratzea, irakaskuntza teknikoan eta sormen-prozesuen arteko lotura indartzeko?

2. Baterako proiektuak egiteko ingurune eta espazio bat sortzea aurreikus al liteke? Egin al liteke ikastetxeen baterako plan bat?

#### EUROPAR DIMENTSIOA ETA TALENTUA ERAKARTZEA

NAEEK Erasmus+ programetan parte hartzen du, eta mugikortasun-akordioak ditu Europako erakundeekin. Gainera, ikasleen erdiak, gutxi gorabehera, Nafarroatik kanpokoak dira, eta horrek eskola erakargune ekonomiko eta kultural bihurtzen du. Nazioarteko dimentsio hori balio bihur daiteke Nafarroarentzat, ikuspegi estrategiko baten barruan sartzen bada.

1. Gobernuarentzako interesekoa izan al liteke aztertzea Nafarroarentzat zer-nolako potentziala duen beste eskualde eta herrialde batzuetako ikasleak jadanik erakartzen dituen ikastetxe bat edukitzeak?

2. Aukera gisa baloratuko al litzateke ikasketa artistikoen bilgune bat, penintsularen iparraldeko erreferente izanen litzatekeena, sortzeko aukera?

#### IRISGARRITASUNA, BERDINTASUNA ETA PRESTAKUNTZARAKO LAGUNTZA

Eskaintza publikorik ez dagoenez, Nafarroan arte eszenikoak ikasteak kostu handia du gaur egun familia askorentzat. Laguntza-mekanismoak aztertzea —bekak, laguntzak edo lankidetzak— lagungarria izan liteke nafar gazte gehiagok beren komunitatean bertan ikasteko aukera izan dezaten, egoera ekonomikoa eragozpen izan gabe.

1. Asmorik al du Gobernuak arte eszenikoetako ikasleei laguntza ekonomikoa emateko balizko moduak aztertzeko, sarbide-berdintasuna erraztekoak?

2. Aurreikus al liteke prestakuntza-zentroekin aldi baterako lankidetzan aritzeko ereduren bat, etorkizuneko balizko erregulazio baterantz aurrera egiten den bitartean?

3. Esan al liteke NAEE zerbitzu komunitario bat ematen ari dela, eskaintza publikorik gabeko espazio bat betetzen ari den aldetik?

#### ESKARIA FINKATZEA ETA LEHENENGO PROMOZIOA

NAEEK ikasturte honetan bere lehen promozio osoa izanen du, eta adierazle horrek egonkortasuna, jarraitutasuna eta ikasleen eskari jarraitua islatzen ditu. Sendotze hori seinale baliagarria izan daiteke Nafarroan arte eszenikoetako goi-mailako prestakuntza jasotzeko dagoen interes erreala ulertzeko.

1. Interesgarria izanen al litzateke datu horiek Gobernuak arte-irakaskuntza berriak Nafarroan tankertazeari buruz egiten duen hausnarketari eranstea?

2. Aurreikusi al da hitzarmen edo proiektu piletaren bat ezartzeko aukera, jadanik badagoen prestakuntza-ibilbidea aztertzekoa?

#### IRAKASLE ESPEZIALIZATUAK ETA SEKTO-REAREN GARAPENA

Arte-irakasleak baliabide espezializatuak dira, eta ordeztzen zailak. NAEEK ibilbide luzea eta profil desberdinak dituzten profesionalak ditu, Nafarroako kultura-sektorea garatzen laguntzen dutenak. Horrelako lanbideetarako ingurune egonkorak bermatzeak hezkuntza-kalitatea eta sormen-ekosistemaren bilakaera indartu litzake.

1. Gobernuak arte-irakaskuntzetan espezializatutako irakasleen egonkortasuna eta aintzatespena bultzatzeko neurriak sustatzeko aukera kontuan hartzen al du?

#### LOTURA NAFARROAKO IKUS-ENTZUNEZKOEN 20-30 ESTRATEGIAREKIN

Gobernuak lehentasunezko sektoretzat jo du ikus-entzunezkoa, eta pizgarriak, filmaketak eta lurralde-garapenari lotutako proiektuak indartu ditu. Apustu hori indartu egin daiteke, baldin Nafarroatik proiektuak sortu, interpretatu eta zuzendaritzapean hartzeko gai den tokiko talentua sortzen duen prestakuntza-sistema batekin laguntzen bada.

1. Interesgarria izanen al litzateke aztertzea Ikus-entzunezko 20-30 Estrategia nola erlaziona daitekeen Erkidegoaren barruan goi-mailako prestakuntza artistikoa garatzearekin?

2. Gobernuak ba al du aurreikusita sormen- eta prestakuntza-eragileekiko elkarrizketa-espaziorik, estrategia horrek tokiko talentuaren garapena barne har dezan?

#### PROIEKTU ESTRATEGIKOAK: CLAVNA, IKUS-ENTZUNEZKO HUB-A ETA GUELBEZU ZINEMA

NAEEK tinko parte hartzen du CLAVNAn, eta hainbat kultur ekimenetan lagundu du. Guelbenzu zinema birgaitzea, bai eta "Zinema-auzo bat" proiektua ere, prestakuntza, sorkuntza eta herritarren parte-hartzea lotuko dituen ekosistema bizia sortzeko moduko espazioak dira.

1. Aurreikusten al du Gobernuak NAEEKikiko lankidetzak-espaziorik proiektu estrategiko horien esparruan, bereziki NAEE prestakuntza- eta sormen-eragile den aldetik?

2. Kontuan hartzen al da NAEE etorkizuneko ekipamenduen parte izateko aukera, hala nola ikus-entzunezko hub-aren edo Guelbenzuren parte, gogoan izanik aurretik egin duen lana eta herritarrek kontsulta publikoetan adierazitako interesa?

Iruñean, 2025eko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

**11-25/PES-00455. Galdera, gaitako ikasle eta irakasleei buruzkoa****ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, gaitako ikasle eta irakasleei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Nafarroako Gobernuari eskatzen dio galdera hauei idatziz erantzun diezaien.

Gaita edo dultzaina Nafarroan oso errotua dagoen tradiziozko musika-tresna da eta Foru Komunitateko hanbat musika eskola eta akademiatan irakasten da.

– Hezkuntza Departamentuak dituen datuen arabera, Nafarroan zenbat gaita ikasle eta irakasle daude (datuak ikastetxeen arabera eta mailen arabera emanak)?

– Hezkuntza Departamentuak dituen datuen arabera, Nafarroan zenbat gaita ikasle eta irakasle daude (datuak ikastetxeen arabera eta mailen arabera emanak)?

– Zein dira gaur egun Nafarroan gaita-irakasle titulua lortzeko aukerak?

– Zein da musika-tresna horren ikaskuntza eta irakaskuntza arautzen duen markoa?

– Zer asmo du Hezkuntza Departamentuak musika-tresna hori Nafarroako Kontserbatorio Profesionalen eta Goi Mailako Kontserbatorioan garatzeko?

Iruñean, 2025eko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

**11-25/PES-00457. Galdera, osasun arloan izandako jazarpen salaketei buruzkoa****CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, osasun arloan izandako jazarpen salaketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaien:

Ziurtatu al dezake Osasuneko Kontseilariak NOUko, O-NOZeko edo Osasun Departamentuko zuzendaritza-karguek ez zutela alde aurretik izan abenduaren 19an aipatu zuen jazarpenagatik salaketaren berri, edo antzeko gertakari baten berri, idatziz edo salatzaileek kargu horiekin izandako bileraren batean?

Halakorik egon balitz, zer salaketa jaso ziren, idatziz zein ahoz, zer zuzendarik izan zuen/zuten horren berri, eta zer neurri hartu ziren?

Iruñean, 2025eko abenduaren 22an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

---

## **11-25/PES-00458. Galdera, Espainiako Gobernuak Next Generation funts europarren mailegutako 60.000 milioi eurori uko egiteari buruzkoa**

*ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Espainiako Gobernuak Next Generation funts europarren mailegutako 60.000 milioi eurori uko egiteari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Duela gutxi jakin da Espainiako Gobernuak 60.000 milioi eurori uko egin diela Next Generation funts europarretako maileguen bidez esleituta zituen 163.000 milioi euroetatik.

1.- Erabaki horrek izanen al du ondoriorik Nafarroan?

2.- Izanen al du eraginik abian diren proiektuetan? Ba al dago proiekturik zenbateko horrekin finantzatzea aurreikusita zuenik eta, ondorioz, egiten ez direnik?

Iruñean, 2025eko abenduaren 23an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

## 11-25/PES-00459. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea eraikitze lanen aurrekontuari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea eraikitze lanen aurrekontuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako ahozko galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, Lurralde Kohesiorako Departamentuak eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

Gobernuko lehendakariak 2020ko urriaren 27an iragarri zuen Nafarroako Ubidearen eta Estatuaren Jarraipen Batzordearen bileran eta Canasako Administrazio Kontseiluan akordio bat lortu zela Nafarroako Ubidearen 2. fasean bi hodi (dekalajerik gabe) aldi berean eraikitzeke. Hasieran hodi bat eta gero bigarrena (dekalajearekin) eraiki beharrean aukera hori hautatzeko kontuan hartu zen arrazoietako bat ekonomikoa izan zen; izan ere, hautatutako konponbideak aurrekontu txikiagoa du, dekalajea duten bi eroanbideen aukerarekin alderatuta: 220 milioi euro; dekalatutako alternatibak, aldiz, 225 milioi euro.

Nafarroako Ubidearen Bigarren Fasea eraikitzeke proiektuak, 2022ko martxokoak, 241.226.402,33 euroko balioa ezarri zuen kontratuaren balio zenbatetsi gisa, eta horri gehitu behar zaizkio laguntza teknikoaren kostua (3.618.396,03 euro), desjabezteena (3.722.049,92 euro) eta Gauzatze Materialaren Aurrekontuaren % 2 Kultura Ondararako (1.216.267,57 euro). Administrazioaren Ezagutzarako Aurrekontua 249.783.115,86 eurokoa izanen litzateke guztira, eta BEZa aplikatuta, 302.237.570 eurokoa.

Lurralde Kohesiorako kontseilariak "Azpiegiturak eta uraren jasagarritasuna Nafarroan" izeneko jardunaldian parte hartu zuen 2025eko maiatzaren 23an, Tuteran. Bertan, Riegos de Navarrako zuzendariak jakinarazi zuen 2. fasea eraikitzeke kostu zenbatetsia 306,86 milioi eurokoa izanen zela, eta kostu horretan aterako zela lehiaketara obra.

2025eko azaroaren 13an, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak (MITECO) iragarri zuen ministerio horretako Uraren Zuzendaritza Nagusiak onespren tekniko eman ziola Nafarroako Ubidearen bigarren fasea eraikitzeke proiektuari, eta adierazi zuen obrek 373.731.170 euroko lizitazio-aurrekontua izanen dutela.

Hori guztia ikusita, honako galdera hauek aurkezten dira, idatziz erantzun dakien:

1.- Nafarroako Gobernuak ba al daki zein den Nafarroako Ubidearen bigarren fasea eraikitzeke obren azken lizitazio-prezioa?

2.- Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak 2025eko azaroaren 13an iragarritako 373.731.170 euroko prezio hura izanen al da, ala beste zenbateko bat?

3.- Zergatik izan du 70 milioi euro baino gehiagoko gehikuntza 2022ko martxoan eraikuntza-proiektuan iragarritako zenbatekoak, gaur egungo 373 milioietara arte? Zer daki Gobernuak igoera horri buruz?

4.- Gobernuak eskueran duen informazioaren arabera, zergatik dago 150 milioi baino gehiagoko igoera 2020an iragarri zen zenbatekoaren eta MITECOk orain iragarri berri duenaren artean?

5.- Ez al du uste Gobernuak, kontuan hartuta Nafarroako Ubidearen Bigarren Fasea eraikitzeke prezioa 150 milioi euro baino gehiago igo dela, 2020an bi hodi aldi berean eraikitzea erabaki zenetik (dekalajerik gabe), komenigarriagoa izanen litzatekeela, bai Canasaren bai erabiltzaileen interesetarako, obraren bi hodiak lehenengo bata eta gero bigarrena (dekalajearekin) eraikiz egitea?

6.- Ez al du uste Gobernuak bigarren aukera horrek 100 milioi eurotik gorako aurrekia ekarriko lukeela, noiz eta oraindik ez dakigunean zein den Nafarroako Ubidearen sisteman sartzeko dela-eta ureztatzaile-erkidegoetan dagoen eskaria, biga-

rren faseak eragindako eremuan? Ezagutzen den azken datua 2018koa da, eta une horretan ez ziren ezta 10.000ra ere iristen sistema horretan sartuko liratekeen hektareak.

7.- Noizko aurreikusten du Gobernuak jakitea zenbat hektarea sartuko diren guztira Nafarroako Ubidearen sisteman, bigarren fasean?

8.- Canasak obren lizitazioa egin arte itxaronen al da sartutako hektareen datua jakiteko, edo zenbat diren kontuan hartu gabe egingen al da?

Iruñean, 2025eko abenduaren 29an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## 11-25/PES-00460. Galdera, mendekotasuneko III+ graduari buruzkoa

*JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak egindako galdera, mendekotasuneko III+ graduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuaren Eskubide Sozialetako,

Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilari Carmen Maeztu andeari, idatziz erantzun dezan:

Onartu berri den urriaren 21eko 11/2025 Errege Lege-dekretuarekin (11/2025 Errege Lege-dekretua, urriaren 21ekoa, zeinaren bidez neurriak ezartzen baitira Autonomiarako eta Mendekotasun-arretarako Sistema indartzeko eta neurriak ezartzen dituen eta Alboko esklerosi amiotrofikoa eta konplexutasun handiko beste gaixotasun edo prozesu itzulezin batzuk dituzten gaixoen bizi-kalitatea hobetzeko urriaren 30eko 3/2024 Legean ezarritako betebeharrak betetze aldera), neurri berriak ezarri dira, mendetasunari arreta emateko sistema autonomikoek eta foralek kontuan hartu beharrekoak.

• Foru-arauen zer egokitzapen egingen ditu Nafarroako Gobernuak 11/2025 Errege Dekretuaren eskakizunei erantzuteko? Noiz egingen ditu?

• Zer aldaketa egingen dira protokoloetan, giza baliabideetan, zerbitzuetan, prestazioetan eta abarretan, III+ graduaren esleipena gauzatzeko? Noiz ezarriko dira?

Iruñean, 2025eko abenduaren 30ean

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrás

## 11-25/PES-00461. Galdera, gizarte-zerbitzuetako larrialdi-laguntzei buruzkoa

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak egindako galdera, gizarte-zerbitzuetako larrialdi-laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuaren Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilari Carmen Maeztu andreari, idatziz erantzun dezan:

Uztailaren 15eko 48/2020 Foru Dekretuaren arabera, toki-erakundeak behartuta daude Nafarroako Gobernuak jasotako zenbatekoa itzultzera, larrialdiko laguntzen gastua kostu espezifikoengatik finantzaketaren % 20 baino txikiagoa denean.

• 2023tik, zer toki-erakundek itzuli behar izan dituzte zenbatekoak arrazoi horrengatik? Zer zenbateko? Departamentuak zer balorazio egiten du ez-betetze hori kasu bakoitzean eragiten duten arrazoiari buruz? Zer neurri hartzen edo hartuko ditu Departamentuak ez-betetze hori saihesteko?

Iruñean, 2025eko abenduaren 30ean.

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrás

## 11-26/PES-00001. Galdera, NOUko sexu- eta/edo lan-jazarpenari buruzkoa

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, NOUko sexu- eta/edo lan-jazarpenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, idatziz erantzuteko honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuari igor dakizkion:

2025eko abenduaren 19an, sare sozialek, eta komunikabideek gero, Nafarroako Unibertsitate Ospitalean gertatutako sexu- eta lan-jazarpenagatik salaketa anonimo baten berri eman zuten.

Horri buruz, parlamentari honek idatzizko galdera hauek egiten ditu:

Ba al dago sexu- eta/edo lan-jazarpeneko kasuetarako jarduera-protokolorik Nafarroako Unibertsitate Ospitalean eta OSN-Oko gainerako atalean?

Protokolorik egonez gero, inolako tresnarik taxutu al da pertsonak sexu- eta/edo lan-jazarpena anonimoki salatu ahal izateko?

Sexu- eta/edo lan-jazarpenaren salaketa anonimoen aurrean jarduteko tresnarik ez badago, zer jarduera-gidari heltzen dio OSN-Ok, pertsonak jokabide horietatik babestu eta jokabideok desagerrarazteko?

OSN-Ok zer jarduketa egin ditu, sare soziale-tan eta komunikabideetan agertutako salaketa dela-eta?

Portaera horiek jakinaraziak izan aurretik ere haien berri izan bazuen, zer neurri hartu ziren salatutako jokabidea zuzentzeko?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 2an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

## **11-26/PES-00002. Galdera, arantza bifidoa eta/edo hidroze-falia duten pertsona helduak kronikoen estrategian oinarri hartuta artatzeko ereduari buruzkoa**

*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, arantza bifidoa eta/edo hidroze-falia duten pertsona helduak kronikoen estrategian oinarri hartuta artatzeko ereduari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Osasun Departamentuak 11- 25/PES-00045 galderari emandako erantzunean hauxe esaten zen: "Nafarroako Arantza Bifidoaren eta Hidroze-faliaren Elkarteko kideekin izandako azken bileraren ostean, helduak artatzeko eredu bat prestatzea pentsatu dugu, kronikoen estrategian oinarritua hala behar duten pazienteentzat, haur kroniko konplexuen unitatean jadanik artatuak izaten ari direnen trantsizioa errazteko xedez". Erantzun horren haritik, zer urrats egin dira orduz geroztik, eta zertan da kronikoen estrategian oinarrituta prestatu behar zen helduak artatzeko ereduaren ezarpena?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

## **11-26/PES-00003. Galdera, 2024an eta 2025ean Lagun Egiteko Animalien Identifikaziorako Nafarroako Erregistroan erregistratutako zakurren eta katuen erroldan izandako aldaketei buruzkoa**

*FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, 2024an eta 2025ean Lagun Egiteko Animalien Identifikaziorako Nafarroako Erregistroan erregistratutako zakurren eta katuen erroldan izandako aldaketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

11-25/PEI-01074 informazio-eskaeraren bidez eskatutako informazioa jasota, Lagun Egiteko Animalien Identifikaziorako Nafarroako Erregistroan 2025ean erregistratutako zakur eta katuei buruzkoa, eta informazio hori 2024an jasotakoarekin alderatu ondoren, hauxe jakin nahi nuke:

Aztertu al dituzue zakurren eta katuen erregistratzeetan izandako alde horiek? Baiezkoan, zein da alde horien arrazoia?

Iruñean, 2025eko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **11-25/ELCT-00001. Nafarroako Parlamentuak Senatuari Konstituzio Auzitegiko magistratu izateko aurkeztu behar dizkion bi hautagaiak izendatzea**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Senatuko lehendakariak jakinarazi du abiarazi dela Konstituzio Auzitegiko magistratu izateko lau postu betetzeko prozedura, eta autonomia-erkidegoetako legebiltzarrek bi hautagai aurkezten ahal dituztela. Horretarako epea 2026ko otsailaren 16ko 18:00etan amaituko da.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak ez du aurreikusten hautaketa horretarako arau berriazkorik. Hori dela-eta, Erregelamenduaren 42.1.bederatzigarrena artikuluekin bat, Mahaiak eta Eledunen Batzarrak izendapen hori egiteko arauak onetsi behar dituzte.

Horretarako, Legebiltzarreko legelari nagusiak arau-proposamen bat prestatu du.

Horiek horrela, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42.1.bederatzigarrena artikuluan xedatutakoaren babesean, honako hau ERABAKITZEN DA:

**Lehenengoa.** Nafarroako Parlamentuak Senatuari aurkeztu beharreko bi hautagai aukeratzeko prozesua hastea, Senatuak Konstituzioko 159. artikuluari jarraikiz dagokionaren arabera bete beharreko Konstituzio Auzitegiko magistratuen lau postu hutsak bete ditzan.

**Bigarrena.** Aipatutako hautagai-aukeraketa egiteko arauak onestea. Hona arau horiek:

1. Nafarroako Parlamentuak Konstituzio Auzitegiko magistratu izateko bi hautagai aukeratu ditu, Senatuari aurkezteko.

2. Talde parlamentario bakoitzak hautagai bat edo bi aurkezten ahalko ditu.

3. Legebiltzarreko Mahaiari igorritako idazki baten bidez aurkeztu beharko dira hautagaitzak, eta, idazki horretan, proposatutako hautagaiaren onarpena jaso beharko da. Hautagaiak Konstituzio Auzitegiari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan ezarritako eskakizunak bete beharko dituzte. Idazki horrekin batera aurkeztuko dira hautagaiak aipatutako 18. artikuluan ezarritako eskakizunak betetzen dituela egiaztatzeko frogagiriak eta talde parlamentarioaren iritziz hautagaia egokia dela erakusten duten merezimendu profesionalen eta bestelako ezaugarrien zerrenda bat.

4. Hautagaitzak aurkezteko epea 2026ko otsailaren 5eko 15:00etan bukatuko da.

5. Behin hautagaitzak aurkezteko epea amaitutakoan, Mahaiak kalifikatuko du ea ezarritako eskakizunak betetzen dituzten proposatutako hautagaiak, eta, ondoren, eskakizunak betetzen badiutuzte, hautagaiak aukeratuko ditu.

6. Hautagai-aukeraketa aldi berean egingen da Parlamentuaren Osoko Bilkuran, isilpeko bozketa-aren bidez.

7. Bozketa txartelen bidez egingen da, eta bete beharreko postuak bezainbeste izen jartzen ahalko ditu txartelean parlamentari bakoitzak.

8. Mahaiak boto-kontaketa egingen du, eta boto gehien eskuratu dituzten bi hautagaien aukeraketa aldarrikatuko du.

9. Proposamenean eragina izaten ahal duten balizko berdinketak ebazteko, beste bozketa baten egingen da boto kopuru bera lortu duten hautagaien artean. Berdinketak bere horretan baldin badirau, boto kopuru bera lortu duten hautagaien arteko bozketak egingen dira bata bestearen atzetik, harik eta berdinketa hautsi arte. Hirugarren bozketaren ondoren berdinketak bere horretan badirau, amaitutzat joko da aukeraketa-prozedura.

**Hirugarrena.** Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea**

### *HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikuluekin bat, honako hau erabakitzen da:

**1.** Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2026ko otsailaren 5eko 15:00etara arte luzatzea.**

**2.** Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **11-24/ELC-00002. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako kide bat hautatzea**

### *HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikuluekin bat, honako hau erabakitzen da:

**1.** Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako kide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2026ko otsailaren 5eko 15:00etara arte luzatzea.**

**2.** Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **11-25/ELCR-00001. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko bost kideak hautatzea**

### *HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikuluekin bat, honako hau erabakitzen da:

**1.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko bost kideak hautatzeko hautagaitzak aurkezteko epea **2026ko otsailaren 5eko 15:00etara arte luzatzea.**

**2.** Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **11-25/ELCO-00002. Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako (Gizain Fundazioa) patronatukide bat hautatzea**

### *HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikuluekin bat, honako hau erabakitzen da:

**1.** Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako (Gizain Fundazioa) patronatukide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2026ko otsailaren 5eko 15:00etara arte luzatzea.**

**2.** Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-25/OAN-00001. Barneko informazio-sistemaren organo arduradunean jardunen diren pertsonak hautatzeko erabakia**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, honako ERA-BAKI hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 17an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuaren Barneko Informazio-sistemari buruzko Arauak onetsi zituen (145. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala, abenduaren 2koa). Arau horien lehen xedapen gehigarrian ezartzen denez, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak Barneko Informazio-sistemaren Organo Arduradunean jardunen diren pertsonak hautatuko ditu. Bestalde, arau horien 5. artikuluan ezartzen denez, honako hauek osatuko dute kide anitzeko organo hori: legelari nagusiaren kargua duenak, Nafarroako Parlamentuan datu-babesaren ardura duen ordezkariak eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak hautatutako legelari batek.

Hori dela eta, legelari nagusiak proposamena egin du, Barneko Informazio-sistemaren Organo Arduradunean jardunen duen legelaria izendatzeko hautatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluaekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Legelari Ignacio Ordoki Guarch jauna hautatzea Nafarroako Parlamentuko Barneko Informazio-sistemaren Organo Arduraduneko kide izateko.

**2.** Jakintzat ematea aipatu organoa honako hauek osatuko dutela: Parlamentuko legelari nagusi Silvia Doménech Alegre andreak, Nafarroako Parlamentuan datu-babesaren arduradun den Isabel Cañas Palacios andreak eta legelari Ignacio Ordoki Guarch jaunak.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **5/2026 Ebazpena, urtarrilaren 14koa, Nafarroako Parlamentuko Legelari Nagusiarena, zeinaren bidez Iñaki San José Mendióroz jauna izendatzen baita Nafarroako Parlamentuko Mahaiko eta Eledunen Batzarreko Idazkaritzaren buru**

Nafarroako Parlamentuko Administrazioaren Antolamenduari buruzko Erregelamenduaren 9.2. artikuluan aurreikusten denez, legelari nagusiak izendatuko du Mahaiaren eta Eledunen Batzarren Idazkaritzaren burua, administrarien kidegoko funtzionarioen artetik, eta legelari nagusiaren ebazpenez utziko du kargua, uko egiteagatik edo jarduneko funtzionarioaren egoera ez den beste batera igarotzeagatik, eta kargua betetzea ezinezkoa izateagatik.

2025eko ekainaren 11n, Iñaki San José Mendióroz jaunak Nafarroako Parlamentuko administrari postua hartu zuen; beraz, izendapenerako baldintzak betetzen ditu.

Horiek horrela, eta Parlamentuko Administrazioaren Antolamenduari buruzko Erregelamenduaren 9. artikuluaen 2. apartatuan ezarritakoari jarraikiz, honako hau

**EBAZTEN DUT:**

**1.** Iñaki San José Mendióroz jauna izendatzea Nafarroako Parlamentuko Mahaiko eta Eledunen Batzarreko Idazkaritzaren buru.

**2.** Agintzea argitara dadila Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

**3.** Erabaki hau jakinaraztea interesdunari eta Zerbitzuburu guztiei, dagozkion ondorioak sor ditzan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 14an

Legelari nagusia: Silvia Doménech Alegre

## 11-25/CCNG-00001. Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren ebazpena, zeinaren bidez ezartzen baita erakunde horren Erregistro Orokorrak 2026an izanen duen ordutegi ofiziala

Kontuen Ganberako langileen 2026ko lan-egutegia onetsi delarik, Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorren 2026rako ordutegi ofiziala zehaztu beharra dago, erakunde horren bulegoetan aurkezten ahal den dokumentazioa jasotzearen ondorioetarako.

Nire eskumenak baliatuta, lehendakaria naizen aldetik

EBATZI DUT:

**Lehena.** Xedatzea ezen Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorren 2026. urterako ordutegi ofiziala, bere bulegoetan dokumentuak aurkeztekoa, 09:00etatik 14:00etara bitartekoa izanen dela, astelehenetik ostiralera. Halaber, gogorarazten da erakunde honek Erregistro Orokor Elektronikoa ere baduela Egoitza Elektronikoan, zeinetara erakundearen webgunearen bidez sar baitaiteke.

**Bigarrena.** Xedatzea ezen, dokumentazioa erregistratzearen ondorioetarako, erakunde honen Erregistro Orokorra itxita egonen dela larunbatean, igandeetan eta Nafarroako Foru Komunitaterako orokor gisa ezarritako jaiegunetan (129. NAO, 2025eko ekainaren 30ekoa), bai eta uztailaren 6, 7, 8, 9, 10, 13 eta 14an (lanegun ez diren egunak, sanferminak direla-eta), martxoaren 20an, azaroaren 30ean eta abenduaren 4an eta 7an ere, zeinak egun baliogabeak izanen baitira ondorio guztietarako.

**Hirugarrena.** Erabaki honen berri ematea Nafarroako Kontuen Ganberako langile guztiei, eta agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren webgunean argitara dadin, jende guztiak ezagut dezan.

Iruñean, 2025eko abenduaren 23an

Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

## 11-25/CCNG-00003 Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren ebazpena, zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregelamendu Finantzarioa

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren ebazpena, zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregelamendu Ekonomiko Finantzarioa.

Erakundeko kontu-hartzaileak proposatu du Erregelamendu Ekonomiko Finantzarioaren 36. eta 37. artikulua aldatzea, halako moldez non aurrekontuaren itxiera- eta likidazio-datak eta Kontuen Ganberaren kontuak aurkezteko data aldatzen diren eta gastu-konpromisoak izapidetzeko datak zehazten diren, horrela aurrekontu-errealitateari hobeto erantzuten zaiola jotzen duenez gero.

Aldaketa horrek erakundearen administrazioaren oniritzia du.

Beraz, lehendakaria naizen honek, nire ahalmen eta eskumenak baliatuta,

EBATZI DUT:

**Lehena.** Kontuen Ganberaren Erregelamendu Ekonomiko Finantzarioaren 36. eta 37. artikulua aldatzea. Honela idatzita geratuko dira:

“36. artikulua. Aurrekontuaren itxiera eta likidazioa

1. Ekitaldiaren itxiera eta Ganberaren aurrekontuaren kitapena urte naturaleko abenduaren 31n egiten dira, hurrenez hurren eskubide eta betebeharren aitortpenari eta haien diru-bilketa eta ordainketari dagokienez.

2. Salbuespen gisa, justifikazio-kausak daudenean eta kontu-hartzaileak aldeko txostena egin ondoren, zilegi izanen da betebeharrak aitortzea kasuko hartzekodunen eskubideei buruzko justifikazio-agiriak aurkezten badira hurrengo ekitaldiko urtarrilaren 31ra bitartean.

3. Urtarrilaren 31 baino lehen kontabilizatuta egon beharko dira aurreko urteari dagokion ekitaldiko itxiera-eragiketa guztiak.

4. Abenduaren 31 izanen da azken eguna, hartu beharreko konpromisoak biltzen dituzten baina aldi berean betebehar-aitorpenik jasotzen ez duten kontabilitate-espediente berrien aurre-tiazko idatzoharrak egitekoa.

37. artikulua. Kontuen Ganberaren kontuak

1. Administratzaileak, Kontu-hartzailezarekin lankidetzan, kontuen aurreproiektua eginen du eta idazkari nagusiari aurkeztuko dio urte bakoitzeko martxoaren 31 baino lehen.

2. Aurreproiektu hori jaso ondoren, Idazkaritza Nagusiak dagokion auditoreari edo horretarako kontratatzen den auditoretza-enpresari helaraziko dio, berrikus dezan.

3. Berrikuspen hori egin ondoren, auditoreak dagokion fiskalizazio-txostena bidaliko dio idazkari nagusiari apirilaren 15a baino lehen, eta, kontuen aurreproiektuarekin eta egokitza jotzen dituen

gogoetekin batera, lehendakariari helaraziko dio apirilaren 20rako.

4. Lehendakariak, auditoreei entzun ondoren, kontuen proiektua onetsiko du eta, egindako fiskalizazio-txostenarekin batera, Nafarroako Parlamentuari bidaliko dio urte bakoitzeko apirilaren 30a baino lehen, hark onets dezan".

**Bigarrena.** Xedatzea ezen aldaketa honek indarra hartuko duela ebazpen hau onesten den egunean.

**Hirugarrena.** Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Mahaiari igortzea, ezagut dezan eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin, eta agintzea erakundearen webgunean eta intranetean argitara dadin.

Iruñean, 2025eko abenduaren 23an

Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador





